



Galdakao^{ko}
Udala

GAIA - ASUNTO

GALDAKAOko udal artxiboa

6953/4



SANTA MARIA DE GALDAKAO

Noticias referentes a su construcción

1791 • 1947

GALDAKAKO ANDRA MARI ELEIZA

Beronen eraikuntzaren berriak

Amaia Aguirre / Xabier Valencia

GALDAKAO

1996

SANTA MARIA DE GALDAKAO

Noticias referentes a su construcción

1791 • 1947

GALDAKAOKO ANDRA MARI ELEIZA

Beronen eraikuntzaren berriak

Amaia Aguirre / Xabier Valencia

GALDAKAO

1996

Diseinu eta Fotokonposaketa / Diseño y Fotocomposición :
ESTUDIO ZEBRA

Itzultzaile / Traductor :
ASIER ASTIGARRAGA

Imprimaketa / Impresión :
ECOLOGRAF

Lege Gordailuaren zka / Depósito Legal: BI-1735-96
I.S.B.N.: 84-605-5544-5

*Gure asmoa, esperantzak,
herria, askatasuna,
justizia, pakea,
egia, maitasuna...*

Joserra Gardeazabal gogoratu.

INDICE

1. Intenciones	13
2. Los asentamientos humanos en la sierra del Ganguren	17
3. Una nueva parroquia. Comienzo del proceso	23
3.1. Galdakao hacia 1800	24
3.2. Solicitud de traslado y nuevo templo	30
3.3. Primer proyecto 1791: Ignacio de Albiz	40
3.4. Guerras contra Francia. La inestabilidad social. 1793 - 1814	42
4. El segundo proyecto, traslado de la parroquia	51
4.1. Canteros y arquitectos. Las normas de la Academia de San Fernando	52
4.2. La segunda petición	54
4.3. Traslado de la parroquia	55
4.4. El traslado, una buena idea para los barrios lejanos	59
4.5. Agustín de Humaran, arquitecto autorizado	62
4.6. Los impedimentos	64
5. Nuevo proyecto, el tercero	67
5.1. Una nueva solicitud de construcción, la Diputación de Bizkaia nuevo patrono	68
5.2. Conflicto con la anteiglesia de Bedia	69
5.3. Retraso en los planes, siguen las gestiones	71
5.4. Antonio de Gorroño	72
5.5. El Plan de Antonio de Gorroño	75
5.6. La financiación	76
6. Hacia el templo actual	79
6.1. La Guerra de los Siete Años	80
6.2. La segunda mitad del siglo, Galdakao en 1850	83
6.3. Problemas económicos y de convivencia, nuevas normas, nuevos tiempos	84
7 - El cuarto y definitivo proyecto	91
7.1 Preliminares	92
7.2 Anteproyecto-Memoria de Alfredo Acebal	97

AURKIBIDEA

1. Helburua	13
2. Ganguren mendikateko giza-bizitokiak	17
3. Parrokia berria sorkuntza	23
3.1. Galdakao 1800. urtearen inguruan	24
3.2. Aldatzeko eskabidea eta eleiza berriaren	30
3.3. 1791.ko lehen egitasmoa: Ignacio de Albiz	40
3.4. Frantziaren aurkako gerrak. Gizarte-egoera larria. 1793-1814	42
4. Bigarren egitasmoa, parrokiaren aldakuntza.	51
4.1. Harginak eta arkitektuak. San Fernandoren Akademiako arauak	52
4.2. Bigarren eskabidea	54
4.3. Parrokiaren aldaketa	55
4.4. Aldaketa, urruneko auzoentzako onuragarri	59
4.5. Agustín de Humaran, baimena jaso zuen arkitektoa	62
4.6. Oztopoak	64
5. Egitasmo berria, hirugarrena	67
5.1. Eraikuntza egiteko eskabide berria, Bizkaiko Foru Aldundia patroia berria dela	68
5.2. Bediako eleizatearekin burruka	69
5.3. Egitasmoen atzerakuntza, ekimenen jarraipena	71
5.4. Antonio de Gorroño	72
5.5. Antonio de Gorroñoren egitasmoa	75
5.6. Dirubideak	76
6. Gaur eguneko eleizarantz	79
6.1. Zazpi Urteko gerra	80
6.2. Mendearen bigarren erdia, Galdakao 1850ean	83
6.3. Arazoak ekonomian eta elkarbizitzan, arau berriak, aro berriak	84
7. Laugarren eta azken egitasmoa	91
7.1. Aurretikoak	92
7.2. Alfredo Acebalen aurreproiektu-memoria	97

8. De los proyectos a las realidades. El templo actual	99
8.1. El autor: Alfredo Acebal	100
8.2. La construcción	100
8.3. La inauguración del templo	103
8.4. Torre, reloj y campanas	104
8.5. El estilo arquitectónico	107
8.6. La ermita de la Cruz, de parroquia a ruinas	111
9. El comienzo de su andadura	115
9.1. Los primeros acontecimientos	116
9.2. La casa cural	119
9.3. Algunas dotaciones mobiliarias: El retablo del rosario y otras cosas	119
9.4. El retablo mayor	122
Conclusión	133
Referencias manuscritas	139
Notas aclaratorias	143
Referencias bibliográficas	147
Anexos	151

	k	
8. Proiektuetatik errealitateetara. Gaur egungo eleiza		99
8.1. Egilea: Alfredo Acebal		100
8.2. Eraikuntza		100
8.3. Eleizaren inaugurazioa		103
8.4. Torrea, erlojua eta kanpaiak		104
8.5. Estilo Arkitektonikoa		107
8.6. Gurutzeko ermita, parrokia hasi eta aurrietan amaitu		111
9. Eleizaren ibilbidearen		115
9.1. Lehenengo gertakizunak		116
9.2. Abadetxea		119
9.3. Zenbait altzari: Arrosarioaren erretaula eta beste gauza batzuk		119
9.4. Erretaula nagusia		122
Amaiera gisa		133
Eskuizkribuetako aipamenak		139
Azalpen-oharrak		143
Bibliografia-aipamenak		147
Eranskinak		151



Iglesia de Sta. M.ª de Galdakao.

Galdakako Andra Mari Eleiza.

I

INTENCIONES

HELBURUAK

No se cumplen todos los días cien años, ni siquiera aquello que esta llamado a durar mucho tiempo más, el templo de Santa María los cumple durante este año y es una circunstancia por la cual todos debemos alegrarnos.

La historia es uno de los instrumentos que nos permite interpretar el presente en base a situaciones anteriores. El templo parroquial es la parte visible de lo que, en lo concerniente a las generaciones que nos precedieron, guarda nuestra memoria. Con este libro, al celebrar el centenario de su construcción, queremos cumplir el propósito de rendir nuestro más sincero homenaje a todas esas generaciones.

Son muchas las parroquias matrices, catedrales o antiguos santuarios, edificados sobre los vestigios de otros anteriores, o también sobre lugares de cultos ancestrales no necesariamente cristianos. En el caso de nuestra parroquia, si no sobre ellos, sí que pudo haberse levantado con los materiales reutilizados de la antigua iglesia de Elexalde. Es una suerte que esta idea no fuera a más y que no se nos haya privado de un edificio, que por su belleza es elemento de orgullo para nosotros, y por su antigüedad el hilo conductor que nos une a un Galdakao de tiempos remotos, a sus necesidades, creencias y formas de vida.

Somos conscientes de que la nueva iglesia tiene poco de suntuoso, no fueron esas las pretensiones ni las posibilidades de la época en que se construyó. Para muchos, tampoco constituye ningún paradigma arquitectónico, nosotros pensamos que es simplemente el espacio que vincula a cualquier galdacanés, al margen de sus creencias religiosas, con lo que él es, con su pueblo. A lo largo de estos años, miles de vecinos han desfilado bajo sus bóvedas, se han sentado en sus bancos, han reído y han llorado, se han unido con la vida y los sentimientos de sus mayores y con la sociedad en que viven, puesto que el templo parroquial, se quiera o no, es para nuestra sociedad algo más que un símbolo religioso. Es lugar de celebraciones tristes y alegres, de bienvenidas y de adioses, punto de encuentro

Ehun urte betetzea ez da egunero gertatzen den jazoera, ezta askoz ere denbora gehiago betetzeko eraiki denarentzako. Aurton Andra Mariren eleizak ehun urte bete ditu eta denok poztu beharko genuke hau dela eta.

Historia oraina lehenean gertaturikoetan oinarrituz irakurtzeko tresna dugu. Aurretik izan ziren belaunaldientzako herriko eleiza gure oroimenak gordetzen duen alderdietako bat da, begien bistan duguna. Liburu honekin, eleizaren lehen mendeurrena ospatzerakoan, aurreko belaunaldioi gure gorazarrerik bihotzekoena eskeini gura genieke.

Parrokia nagusiak, katedralak edo santutegi zaharrak badira aurrekoren baten aztarrenen gainean eregi izan direnak edota derrigorrez kristau izan behar ez duten aspaldiko kultuguneeen gainean eraiki direnak. Hauxe dugu gure parrokiaren kasua, eta hauen gainean barik, behar bada, Elexaldeko eleiza zaharretik harturiko materialak berriro erabiliaz jaso dena. Eskerrak hasierako asmo hori ez zena guztiz bete, honetara badugulako beste eraikuntza eder bat, herritarron harrotasunerako, aintzinako Galdakaorekin, beronen beharrizaneekin, sineskerekin eta bizikerekin lotzen gaituena.

Badakigu jakin eleiza berriak ez duena edergarri handirik erakusten. Ez zen hau, gainera, eraiki zutenen garaiko asmoa. Askorentzat eta askorentzat ez du inongo arkitektura aldeko eredugarritasunik. Guretzako, baina, eleiza hau galdakaoztarra, duen sinismena duela, bera denarekin eta bere herriarekin duen lokarria da. Urteotan zehar hamaikatxo herritarrek hartu du babes bere zerupear, barruko bankuetan jezarriz, pozaldietan eta negarraldietan, euren nagusien eta euren gizartearen bizitzarekin eta sentimentuekin bat eginik. Gura zein gura ez, gure gizartearentzat erlijio-sinbolo baino gehiago delako eleiza. Ospakizunetarako bilgune da, alaiak izan zein tristeak izan, ongi etorria emateko zein agur esateko,

bajo soles y lluvias que ha presenciado brillantes ceremonias y otras que no lo fueron tanto, aunque sí igualmente emotivas. El espacio demandado con insistencia durante todo un siglo, que finalmente se hizo realidad, cumple ahora cien años.

La construcción fue debida en principio, a necesidades puramente prácticas, y su periodo de gestación fue amplio, ciento seis años. Tal y como veremos a lo largo del libro, durante todos ese siglo largo, fueron sucediéndose los acontecimientos políticos, económicos y sociales que marcarían profundamente las formas de vida de la sociedad actual, hasta tal punto es así, que tras ellos, esa sociedad renació completamente reformada. Hablamos del convulso siglo XIX, que comenzó con una guerra contra el expansionismo francés, siguió con otra en la misma línea contra la fuerte voluntad napoleónica y cuando todavía faltaban años para traspasar el ecuador del siglo, estalló en una violenta guerra civil que se dividió en tres periodos, éstas fueron las llamadas guerras carlistas. Todas estos conflictos bélicos, sobre todo la primera guerra carlista durante la cual Galdakao fue cuartel y campo de batalla, tuvieron mucha influencia en la vida de nuestro pueblo y por tanto en sus proyectos constructivos. Tanto es así, que hubo que esperar casi hasta finales del siglo para ver hecho realidad un edificio que hizo escribir muchas líneas y movió muchas voluntades. Precisamente, por la interdependencia de hechos mencionada, en el desarrollo de los cuales tuvieron voz y parte tanto vecinos como ayuntamiento y clero de Galdakao, es por lo que no nos limitaremos a narrar únicamente los directamente relacionados con la edificación de la iglesia, sino que citaremos incluso, el resto de los que aún tangencialmente afectaron en el asunto y hayamos podido constatar.

Con el propósito de favorecer tanto la comprensión como el propio disfrute del lector, queremos que el plan del libro sea sencillo, por ello, su desarrollo viene marcado por los diferentes periodos constructivos a los que siempre va unido un nuevo proyecto de templo. En éstos, al estar influidos por las tendencias artísticas de la época en que se realizaban, se utilizó normalmente el estilo arquitectónico del momento. Por la misma razón, por la influencia que tuvieron los acontecimientos políticos y sociales en cada situación, intentaremos introducirnos en el discurrir de la vida en cada

eguzkipean zein euripean ospakizun ikusgarriak zein apalak direla, hala ere zirrargarriak, eratzeko balio izan duena. Mende oso baten zehar behin eta berriro eskatu zuten eta azkenean eraiki egin zen tokiak ehun urte bete ditu oraingoan.

Hasiara batean eraikuntza beharrianak bultzatuta egin zen, eta ehun eta sei urte hartu zuten berau asmatzeko. Liburu honetan zehar ikusiko denez, mende oso horretan hainbat arazo politiko, ekonomiko eta sozial izan zen, gaur egungo gizartean eragin handia izan dutenak. Horregaitik aldi luze horren ostean gizarte hori guztiz aldatuta agertu zitzaigun. Gorabeheraz beteriko XIX. mendean ari gara, Frantziaren hedapenaren aurkako borrokarekin hasi. Napoleonen erasoaren aurkako jarrerarekin jarraitu eta, mendearen erdira iristeko urteak falta zirela, gerra zibil gogor baten eztanda egin zuena. Karlistadak izan ziren hauek. Gudok, eta batez ere lehenengo karlistadak, Galdakao koartel eta gerra-gune izan zuena, gure herriaren bizitzan eragin nabarmena izan zuten.

Eraikuntza-egitasmoetan ere. Hau zela eta, mendearen azkenera arte itxaron behar izan zen ia-ia idatzi eta eritzi asko eragin zuen eraikuntza hau guztiz egin arte. Bai orain arte aipaturiko gertaerek, bai herritarrek, Udalak eta bertoko eleiz-gizonek hartu zuten jarrerek izan zuten eraginagaitik, ez ditugu eleizaren eraikuntzaren berriak soilik azalduko lan honetan, baizik eta askotan zeharbidez gai honekin loturaren bat zutenak eta gure ikerketetan jaso ahal izan ditugunak.

Irakurleak liburua ondo ulertu eta gogoz irakurdezan, beronen egitura modu xehean azaldu dugu, eta beronen garapena eleiz berriaren edozein egitasmok bete ohi dituen eraikuntza-aldien arabera moldatu dugu.

Azken hauetan, egin ziren aldiko joera artistikoez izan zuten indarra eta gehienetan aldian aldiko arkitektura-estiloa aukeratu zuten.

Hau dela eta, egoera bakoitzean gorabehera politiko eta sozialek izan zuten eraginagaitik, orduan herrian zeuden zehaztasunak eman eta

una de esas épocas, dando detalles del pueblo en ese momento, además de comentar los hechos que afectaron a los proyectos y aspiraciones de la anteiglesia.

Para hacer más legible el texto, hemos decidido que las referencias a los archivos de donde ha sido extraída la información vayan en un apéndice final, junto con la notación bibliográfica y los anexos documentales. A lo largo del libro, cada vez que sea necesario, haremos una llamada mediante un número a la signatura y archivo correspondiente, al autor y título del libro de donde se ha extraído la información, o bien al documento del anexo.

Respecto a los nombres propios de lugar, utilizaremos la forma actual en uso, siempre que no estén incluidos en alguna cita textual, en cuyo caso nos ajustaremos a la denominación y forma gramatical en que lo hemos leído, e irá normalmente escrito en letra cursiva.

Antes de poner punto final a esta introducción, queremos referirnos a las fuentes utilizadas. Además de los archivos que figuran acompañando a las signaturas, hemos consultado en otros no reflejados en esa relación, al no poseer datos susceptibles de ser incluidos en esta publicación. En cuanto a la bibliografía, la tarea preliminar ha consistido en la lectura de publicaciones específicas del siglo XIX, aunque gran parte de ellas por su carácter genérico o localista, no estuvieran directamente relacionadas con Galdakao.

Sabemos que nuestro trabajo no agota todas las fuentes, y que por otro lado datos que aquí se incluyen han aparecido de forma dispersa en varias publicaciones. Nuestra pretensión ha sido recopilarlos y junto a los hallados por nosotros, hacer que den vida a esta monografía. Pero llega el momento que a todo trabajo hay que ponerle un punto final, y ese ha sido nuestro caso. Quedaríamos satisfechos si además de dar a conocer, siquiera someramente, una pequeña parte de la historia contemporánea local, fuera el punto de arranque que anime futuras investigaciones que nos ayuden a conocer mejor el pasado de nuestro pueblo.

gure eleizatearen egitasmoan eta nahietan eragina izan zuten ekintzak azaldu nahi izan ditugu.

Testua irakurgarriago izan dadin, arkibuetatik jaso ditugun aipamenak azken eranskin gisa moldatu ditugu, notazio bibliografikoarekin eta agiri-eranskinekin batera. Liburuan zehar, beharrezko dugun bakoitzean, zenbaki bat erabiliz dagokion signatura eta arkibua aipatuko ditugu, erabili den informazioa jaso dugun liburuaren autorearen eta titulua markatuz zein eranskineko agiriaren berri emanez.

Toki-izenetan, gaur egun ohi duguna erabiliko dugu, testu-aipamenetan izan ezin. Halakoetan irakurri dugun izendatzea eta era gramatikala zainduko dugu, letra makurrez markatuz gehienetan.

Sarrera hau amaitu baino lehen erabili ditugun iturriak aipatu nahi genituzke. Signaturekin batera datozen arkibuez gainera, zerrenda horretan ez dauden beste batzuk erabili ditugu, nahiz eta argitarapen honetan sartzeko moduko datu zehatzak ez euki. Bibliografia dela eta, lehenengo eta behin XIX. mendea zehatzean jorratzen zuten argitarapenak aztertu ditugu, nahiz eta gaia mugatua izan delako edo herri zehatz batekoa izan delako, Galdakaorekin harreman zuzena ez izan.

Badakigu gure lanak ez dituen iturri guztiak agortzen eta, beste alde batetik, hemengo datu asko han-hemenka beste argitarapen batzuetan kaleratu direna. Gure asmoa eurok bildu eta, guk geuk jaso ditugunekin batera, monografia honetan lehengai bihurtzea izan da. Baina lanari azken puntua emateko momentua ere heldu zaigu eta guk holan egin behar izan dugu. Nahikoa litzateke guretzat, labur-labur behintzat, gure herriaren historiaren alderditxo hau ezagutzera ematean, lan hau bihar-etzi egin ditezten ikerkuntzen iturburu balitz, gure herriaren lehenaren berri hobea izan dezagun.

II

LOS ASENTAMIENTOS HUMANOS EN LA SIERRA DEL GANGUREN

GANGUREN MENDIKATEKO
GIZA-BIZITOKIEK

Si observamos un mapa de Galdakao, vemos que su término jurisdiccional, se extiende en su mayor parte entre la ladera sur de la sierra de Ganguren y la ribera derecha del río Ibaizabal. La otra margen, ofrece un espacio habitable mucho menor, al quedar constreñidas sus tierras entre el río y los montes de Arteta, Pagatza, Upo y Mandoia. La orientación geográfica hacia el sur, protegida de los fríos y húmedos vientos procedentes de la mar, sería otra de las razones que incidieron en la elección de esta zona como lugar más habitable.

La sierra del Ganguren ha sido desde tiempo inmemorial lugar de paso y vivienda. El que fuera espacio habitado de antiguo, lo demuestran los hallazgos prehistóricos en enclaves arqueológicos allí localizados. Así lo podemos constatar en el recientemente investigado dolmen de Irumugarrieta, ubicado cerca del collado del mismo nombre en la ladera del monte Avril, en cuya excavación se encontró ajuar de tipo microlítico, junto con abundancia de puntas de flecha pedunculadas y otras dotadas de incipientes aletas, elementos todos que permiten datar el yacimiento en el Calcolítico (2.500-2.000 a.C.) (139). Estos indicios corresponderían a los habitantes de pequeños campamentos ocupados por grupos trashumantes adscritos a alguna cultura de tipo pastoril.

Con el correr del tiempo, el hombre pasó de la trashumancia a la permanencia, por lo que paulatinamente fue creando asentamientos estables, y con ellos aparecieron otras necesidades de habitación y culto a las que iría dando soluciones diferentes en función de unas necesidades puntuales. En este contexto, hemos de citar los sepulcros excavados en la roca del monte Ganguren, en el lugar donde estaría situada la ermita de Santa Marina, modelo de necrópolis poco frecuente en la vertiente marítima cantábrica, tal y como hemos podido leer en la publicación *Bizkaia, Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica* (125).

Como zona de paso, muy cerca del dolmen mencionado, aún pueden verse restos de una antigua cal-

Galdakako mapa bati begiratu bat egingo bagenio, udalerrriaren mugarrien barruan herriaren zatirik handiena Ganguren medikateak eta Ibaizabalen eskumako ibarrak hartzen dutela ikusiko genuke. Beste ibar-zatian bizitzeko toki gutxiago dago, beronen lurra ibaiak berak eta Arteta, Pagatza, Upo eta Mandoia mendiek hartze dituztelako. Hegoalderantz duen kokapen geografikoa, itsasaldetik datozen hotzen eta haize umelen babesean, toki hau bizileku aukeratzeko beste arrazoi bat litzateke, bizitzeko askoz ere toki atseginagoa da eta.

Ganguren mendikatea aintzina-aintzinatik izan da igarobide eta bizileku. Horra hor, esate baterako, han dauden arkeologia-aztarrenetan aurkitu diren gai prehistorikoak. Oraintsu ikertu duten Irumugarrietako jentilarrian, adibidez, izen bera duen mendatetik hur dagoena Avril menditik paraje, berau husterakoan mikrolitos erako tresneria aurkitu zuten, gezi-punta pedunkulatu ugariekin eta hegotxoak zituzten beste hainbatekin batera. Guzti hauek aztarnategi hau Kalkolitos aldikoa (K. a. 2.500-2.000) dela erakusten digute (139). Tresnok argi azaltzen dutenez bertako biztanleak leinu txikikoak ziren, artzaintzatik bizi zen kulturaren bateko talde ibiltariz osatuak.

Urteak eta urteak igaroaz, gizataldeok trashumantzia utzi eta finko gelditu ziren, apurka-apurka eraikuntzak eginez. Hemendik sortu zen egoitzen eta kultuguneen beharrizana, aldian-aldian euroi erantzun zuzena emanaz.

Garai honetakoak liriteke Ganguren mendiaren haitzetan zulaturiko hobiak, Santa Marinako ermita egon omen zen tokitik oso hur, Kantauriko itsasertzean ohiko ez den nekropolis ereduari jarraitzen diotenak *Bizkaia, Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica* argitalpenean irakur hitekeen bezala (125).

Goiago aipatu dugun trikuarritik oso hurbil, igarobidean, badira oraindik galtzada zahar baten



L. Ortiz de Zarate

*M.A.E.H.V. Estela epigráfica de Obispoetxe. Elexalde.
Romana indígena, quizá tardía (Marcos Pous, A, García Serrano, R).*

*E.A.E.K.M. Elexaldeko Obispoetxe Hilarria Erromatar bertokoa,
agian berandukoa (Marcos Pous, A, García Serrano, R).*

zada. Esta asociación de elementos, dolmen, necrópolis y calzada, localizados todos ellos muy próximos entre sí, nos hacen pensar en la antigüedad de la utilización hominal del entorno.

Pero ocurre, que si en un tiempo la ubicación de un edificio era interesante, deja de serlo en otro por razones que perfectamente pueden ser las mismas que obligaron a erigirlo en aquel lugar, tal y como ocurrió con la antigua parroquia de Elexalde. Esta construcción, se halla en la cumbre de uno de los altozanos que rodean el pueblo, es decir en un lugar del municipio, que incluso actualmente se encuentra distante de cualquier otro más habitado. Pero no debe extrañarnos dicho emplazamiento, ya que son muy numerosos los ejemplos similares. Citaremos como los más cercanos la ermita de San Antolín de Legina en Lezama, en la otra vertiente de la sierra, con impostas y puerta románicas, la de San Bartolomé en Larrabetzu, o bien la de San Pedro de Abrisketa en Arrigorriaga, ambas con retazos en sus

aztarrenak. Osagaion lotura honek, dolmena, nekropolisa eta galtzada, bata bestetik paraje, inguru hori gizakiek aintzenetik bizileku izan zutela erakusten digu.

Baina aldi batean toki hori bizitokia eraikitzeke egokia bazen ere, geroago galdu egin zuen egokitasun hori, aintzinako Elexaldeko parrokian gertatu zen bezala. Eraikuntza hau herriaren inguruko gainetxoetariko batean egina da, hau da, gaur egun ere biztanle gehiago duen beste edonondik urrunean dagoen udalerriko toki batean. Kokapen hau, baina, ez da harrigarria, antzeko adibide asko eta asko dago. Hurrekoenen artean Lezaman Leginako San Antolín daukagu, mendikatearen beste aldean, inposta eta ate erromanikoarekin, Larrabetzun San Bartolomerena edo Arrigorriagan Abrisketako San Pedro, bai bata eta bai bestea XII. mendearen

estructuras de elementos anteriores al siglo XII. De todo ello parece deducirse, que la elección de estos montuosos lugares para erigir edificaciones religiosas, fue algo habitual en la Bizkaia altomedieval.

Las razones que se aducen para justificar la elección de éstos elevados emplazamientos son diversas. Labayru lo interpreta utilizando para ello la ayuda del Antiguo Testamento: ... *se le pondría a Dios casa en lo alto de los montes*.

Iturriza sin embargo ofrece otros razonamientos menos espirituales pero más pragmáticos, que van desde el prevenir inundaciones, recordando al diluvio, hasta otras tales como el mejor aprovechamiento de los pastos de altura y de los frutos silvestres: bellotas, bayas etc.

Nosotros pensamos que esa elección, pudo deberse a la ocupación de lugares de culto pagano o asentamientos humanos ancestrales, en actuaciones voluntariamente sincréticas, para construir edificios cristianos, y ya hemos comentado más arriba que los vestigios arqueológicos de la sierra del Ganguren vienen de tiempos muy remotos.

El entorno de Elexalde también sería uno de esos antiguos asentamientos, pues de allí proviene una lápida de forma cuadrangular de unos 43 centímetros de altura, 47 de anchura máxima y 10 de grueso, presenta su frente dividido en dos partes; en la superior lleva grabadas tres figuras enmarcadas en cuadrado rehundido, en la inferior va una inscripción en latín. También de allí procede una estela discoidea, que se utilizaba como mojón en un camino próximo al templo, tiene grabada una sencilla cruz incisa y dicen que es contemporánea de la iglesia. Otra lápida medieval, de forma rectangular de 71 centímetros de alto y 55 de anchura máxima, decorada con dos círculos que encierran cruces griegas, también se halló Elexalde (125). Estos datos nos inducen a pensar que el emplazamiento de una iglesia tan antigua en este lugar no fue gratuito, sino que pudiera deberse a motivos enraizados en asentamientos humanos o de paso que tienen su origen en tiempos inmemoriales.

Juan Ramón de Iturriza escribe de Galdakao en su *Historia de General de Vizcaya*, en el año 1793, diciendo:

aurreko egitura-arrastoeekin. Hortik guzti horretarik, bada, Bizkaian Goi-Ertaroan eraikuntza erlijiosoak egiteko toki menditsuak aukeratzen zirela esan genezake.

Labayruren ustez toki goietan aukeratzearen arrazoitzat zera ematen zuten,
Testamentu Zaharrak dioenari jarraituz:
... *se le pondría a Dios casa en lo alto de los montes*.

Iturrizak eman zituen arrazoiak, ostera, askoz ere pragmatikoak ziren, ez izpiritualak. Esate baterako, urioletatik urrun gelditzea, uholde unibertsala gogoratzuz, edota goiko belarrak eta basa-fruituak (ezkurrak, baiak, eta abar) hobeto erabiltzeko.

Gure ustez toki-aukera hau aspaldiko kultugune pagano edo giza-bizitokiak berriro hartzetik etorriko litzateke, beren-berregiko ekintza sinkretikoarekin, gainean kristau-eraikuntzak egiteko. Gorago esan denez Ganguren mendikatean badira aintzina-aintzinako aztarren arkeologikoak.

Elexalde ingurua ere aspaldiko guneetarik bat izango litzateke. Hangoa da, esaterako, lauki moduko hobi-harria, 43 zentimetroko altuera eta gutxi gora behera 47ko gehieneko zabalera duena, 10eko lodierakoa.

Aurrekaldea zati bitan du:
goikoan zulaturiko laukiaren barruan hiru figura ditu eta beheko aldean inskripzioa du, latinez. Bada Ertaroko beste hobi-harri bat Elexalden ere agertu zena, errektangularra, 71 zentimetroko altuera eta gehien 55 zentimetroko zabalera duena, barruan gurutze grekoak daramatzaten zirkulu birekin hornitua (125). Adibideetatik ikus genezake ez zela toki hori itsumustuan aukeratu. Badirudi jatorrian, aintzinean, toki horretan giza-eraikuntzak edo igarobideak zirela.

Juan Ramón de Iturrizak 1793. urtean haxe dio Galdakaoz *Historia General de Vizcaya* izeneko liburuan:

... tiene una iglesia parroquial de la advocación de Santa María, una en Echevarri y otra en la Colación de Bedia, fundada según relaciones antiguas, por el caballero don Sancho de Galdácano, pariente del rey de Navarra hacia el año de 1200 en el plano de un ribazo alto y paraje solitario, por causa de la lejanía y subida penosa que había a la parroquia antigua de Santa Marina de Ganguren, la cual iglesia de Santa María reedificada y ampliada posteriormente es de una sola nave... con bóvedas, seis altares, órgano, 112 sepulturas, cimiterio a la redonda y espadaña de piedra sillar morena para campanas y reloj a la testera...

Pero ya vemos, admitiendo lo dicho por Iturriza, cómo en la ladera del Ganguren no solo existió la antigua parroquia de Elexalde. Justo en la zona más elevada de esta montaña estuvo la ermita de Santa Marina de Ganguren, la misma que mencionábamos al principio del capítulo, en el lugar que aún se conoce con el nombre de *Santamañe*. Parece ser que esta ermita funcionó como parroquia, según atestiguan Iturriza y Labayru. Este último indica que tuvo pila bautismal desde tiempos remotos.

Con licencia eclesiástica y a instancias del cabildo y ayuntamiento, se despojó a la ermita de Santa Marina de sus objetos religiosos. El día 11 de junio de 1782, utilizando un anda construida ex profeso, se trasladó la imagen de la santa titular en solemne procesión, con gran concurrencia de gente, desde aquellas alturas a uno de los altares de la ermita de la Santa Cruz o del Santo Cristo (6). El ayuntamiento en consideración a la lejanía del lugar ofreció una refacción a los asistentes en la que gastó 119 reales de vellón. Parece ser que el santuario de Santa Marina de Ganguren gozaba de gran predicamento en la zona.

El 30 de junio del mismo año, una vez vaciada de sus efectos, se apeó y demolió la ermita de Santa Marina y casa del ermitaño (7), empleándose catorce yuntas de bueyes para el acarreo del material. El producto obtenido por la venta del maderamen, la teja y la piedra, se utilizó para adecentar la mencionada ermita de la Cruz, que en adelante pasaría a llamarse ermita del Santo Cristo y de Santa Marina. Tal y como ordenó el visitador del obispo, se reunificaron así los libros de visitas de ambas en uno solo (1). Entre las mejoras llevadas a cabo en la ermita de la Cruz, parece ser que se adornó el interior con pinturas al fresco, representando una Jerusalén, un San Roque y una Virgen María, se acondicionó el altar de la epístola, el que albergaba a Santa Marina y Santa Elena, el púlpito, una escalera falsa y tres alta-

Iturrizak dioena onartuz, hemen ikusten dugu Gangurenen lepoan ez zela Elexaldeko parrokia zaharra bakarrik. Mendi horren goiko aldean Gangurengo Santa Marina ere bazen, kapitulu honen hasieran aipatu duguna eta gaur egun herritarrek *Santamañe* izenaz ezagun dutena. Badirudi ermita honek parrokiaren betekizuna zuela. Iturrizak eta Labayruk diotenez. Azken honek, gainera, aspaldi-aspaldian ponte-harria ere bazuela dio.

Eleizaren baimenaz eta eleiz-batzarraren eta udalaren eraginez, Santa Marinako ermitari erlijio-tresna guztiak kendu zitzaizkion. 1782.eko ekainaren 11n, horretarako egin ziren andak erabiliaz, bertako santa jagolearen irudia, gorentasun handiko prozesioan, eta jendetza handiarekin, hango gainetatik beheko Gurutzeko edo Santo Kristoren ermitako altaretariko batera eramane zen (6). Ibiltariek egin zuten bide luzea kontuan hartuaz udalak 119 erreale erabili zituen etorritako guztiei jatekoa emateko. Badirudi Gangurengo Santa Marinaren santutegia ospe handikoa zela gure inguruetan.

Urte horretan, ekainaren 30ean, behin bertako tresneria guztia atera ostean, Santa Marinako ermitako eta ermitaren zaintzaileareneko (7) osagaiak eratsi eta etxeok bota egin ziren, garraiorako hamalau idi-buztarri erabiliaz. Zura, teilateria eta harria saldu eta irabazia aipaturiko Gurutzeko ermita konpontzeko erabili zen. Berau, handik aurrera, Santo Kristoren eta Santa Marinaren ermita deitu zuten. Gotzaiaren ordezkariak agindurikoari jarraituz, ermita biotako bisita-liburuak batean bildu ziran (1). Gurutzeko ermitan egin ziren aldakuntzen artean, badirudi barruan fresko teknikaz eginiko pinturekin hornitu zela, Jerusalema, San Rokea eta Andra Maria errepresentatuz, epistolaren aldarea eregi, Santa Marina eta Santa Elena zituena, pulpituak egin,

res, tal y como se deduce del peritaje de las pinturas que llevó a cabo el cura y pintor Ignacio de Zumarraga (8).

De la ermita de Santa Marina se sacaron 11.000 tejas. Según nuestros cálculos cubrirían unos 350 m², superficie que ocuparían ermita y vivienda del ermitaño. En cuanto a la piedra, se reutilizó en la construcción de la espadaña que construían entonces las religiosas de la Concepción de Bilbao. La losadura se empleó en San Emeterio y San Celedonio de Goikolexea (126). La campana de la espadaña se colocaría algunos años más tarde (1 de abril de 1809), también en la ermita de la Cruz (21). Justo en el lugar que ocupó la ermita de Santa Marina se colocó una gran cruz, según hemos podido saber por testimonios orales.

Hemos querido comentar los datos referentes a estos venerables edificios, las ermitas de la Cruz y la de Santa Marina de Ganguren, desgraciadamente desaparecidos, por la relación que en su tiempo tuvieron con la antigua parroquia de Elexalde. Esta conexión, no fue únicamente por la localización, en un entorno geográfico más o menos cercano, de las nombradas ermitas con la iglesia de Elexalde, sino por que tal y como hemos visto, y ya lo anunciábamos en la introducción, las necesidades de una sociedad siempre son cambiantes. Se desmontó una ermita por lejana y ruinosa, la de Santa Marina, para adecentar otra, la de la Cruz, que también desapareció, para poder destinar el beneficio obtenido por su venta en la construcción del actual templo parroquial.

sasi-eskailera eta hiru aldare berri egin ziren, Ignacio de Zumarraga abade eta pintoreak perito gisa eginiko pintura-txostenak dakarrenez.

Santa Marinako ermitatik 11.000 teila ekarri zen. Gure kontuen arabera 350 m²ko teilateria betetzen zuten, ermitakoa eta ermitaren zaintzailenekoa. Harria orduan Bilboko Kontzepzioko lekaimEEK egiten ziharduten kanpantorrea eraikitzeke erabili zuten. Lauza-harriak Goikolexeako San Emeterio eta San Zeledoniorenerako hartu zituzten (126). Kanpantorean zeukan kanpaia urte batzuk beranduago (1809.eko apirilaren lean) Gurutzeko ermitan ere erabili zuten (21).

Bai Gurutzeko ermitako, bai Gangurenko Santa Marinako ermitako egoitzetako datu hauek hona ekarri nahi izan ditugu. Zoritxarrez desagertuta daude gaur egun, baina bazuten euren aldiAN Elexaldeko parrokia zaharrarekin lotura. Lotura hau ez zen tokiagaitik bakar-bakarrik, hur-hurreko kokapen geografikoagaitik. Lehenago ere hitzurrean esan dugunez gizartearen beharrianak aldakorrak dira. Bata, Santa Marinako ermita, urrun eta jaustear zegoenez, bestea, Gurutzekoa, konpontzeko erabili zen. Berau ere desagertarazi egin zuten, beronen salmentako dirua gaurko parrokiaren eleizetxea eraikitzeke erabiliaz.

Elipede la Mella; En nombre del Sr. D. Ma-

nuel de Lecanda, Abogado de los Reales Con-
sejos vecino de esta villa, y apoderado de la
noble Anceiglesia de **III** Macano, segun asi
recolata de este poder, que escribo y juro sin

ser visto causar instancia, en aquella via

UNA NUEVA PARROQUIA, COMIENZO DEL PROCESO

unica Colegia Parroquial titulada de Nu-

PARROKIA BERRIAREN

Anteis. ve **SORKUNTZA** encendida de

diferentes corturas y graves reparos muy
preciso e indispensable en sus techados

Campanario y otras partes y sus Sepul-
cros sehullan algunos van superficiales por
estar sobre peñas, que se lopeu menta van

felidez a tiempo en la referida Colegia y para
quitarla, o livigarla aunque se quema

mucha incienso por evitar faculas resultas

3.1. GALDAKAO HACIA 1800

3.1. GALDAKAO 1800. URTEAREN INGURUAN



Iglesia de Andra Mari de Elexalde.

Elexaldeko Andra Mari Eleiza.

Hacia finales del siglo XVIII, en 1791 concretamente, los vecinos de la anteiglesia de Galdakao, por una serie de razones que iremos narrando más adelante, decidieron dotarse de un nuevo templo parroquial. Esta anteiglesia por aquel entonces no era más que un pequeño núcleo rural. Antes de comenzar a analizar los pormenores de ese primer proyecto, creemos que sería conveniente conocer algunos datos de Galdakao hacia 1800. Para ello, en primer lugar, veamos lo que dice Juan Ramón de Iturriza en su *Historia de General de Vizcaya*, del año 1793, así como lo comentado en el *Diccionario de la Real Academia de la Historia*. Vamos con el primero:

Hamazortzigarren mendearen azkenaldean, 1791.ean zehatz esateko, Galdakaoko eleizateko auzoek, beherago azalduko diren arrazoiak zirela eta, parrokiatzat eleiza berri bat hartzea erabaki zuten. Eleizatea orduan herrigune txikiá zen. Lehenengo egitasmo haren ezaugarriak azertu baino lehen komenigarri begitantzen zaigu 1800.eko Galdakaoz datu batzuk ematea. Horretarako Juan Ramón de Iturrizak bere *Historia de General de Vizcaya* liburuan, 1793.ekoan eta *Diccionario de la Real Academia de la Historia* deritzaienean esan zituztenak erabiliko ditugu. Lehenengoak zioen:

... tiene mucho montazgo, jarales, castañares, pastos para el ganado, hierbas medicinales, bellas fuentes de aguas sabrosas, siendo la de la Venta de la Cruz mineral ferruginosa, abundante pesca de anguilas, truchas, barbos y bermejuelas... 800 personas de comunión, tres ferrerías con agua perenne, seis molinos, carnicería, hospital, bella Casa Consistorial reedificada por la anteiglesia en el año de 1755, cuatro tabernas, escuela de primeras letras...

Del segundo tomaremos su descripción completa, ya que exceptuando lo concerniente al número de habitantes, resulta más ilustrativa que la anterior. Esta publicación vio la luz en 1802, criticada en su época desde los ámbitos foralistas (127), resulta ser hoy un buen punto de referencia para hacernos una idea del estado de nuestros pueblos a finales del siglo XVIII:

Anteiglesia de la merindad de Uribe, Señorío de Vizcaya, obispado de Calahorra. Está situada a la falda meridional de la Sierra de Ganguren, a legua y 1/2 de Bilbao, y confina por el n. con Begoña, Echavarrí (sic), Zamudio y Lezama, por e. y s. con Amorovieta (sic), Lemoa, Yurre y Olavarrieta y por o. con Arrigorriaga. Por el s. riega su término el río de Durango, que entra allí inmediato en el Ibaizabal, y sobre el que hay cuatro puentes de piedra. Su territorio es de 8 1/2 leguas de circunferencia, 2 1/2 de largo y 2 de ancho, hay en el muchos montes, en los cuales se hallan jabalíes y algunos lobos y corzos, y varias fuentes ferruginosas, siendo los principales frutos, trigo maíz, lino y aluvias, de cuyas especies se cogen anualmente como 6800 fanegas, y además algún vino chacolí. La población es de 854 personas, que contribuyen por 107 fogueras: hay 2 ferrerías, 3 molinos, muy buena casa consistorial y hospital, tiene el 38.º asiento en las juntas generales de Guernica. Su parroquia está dedicada a santa María, es de patronato real y tiene por anexas las de S. Juan de Bedia y San Estéban de Echevarri: todas 3 están servidas por 6 beneficiados, de los cuales 4 residen en la principal, y uno en cada una de las anexas. Presentanlos el rey, á quien pertenecen también los diezmos de las 3 iglesias: hay además 5 ermitas con advocación de Jesús crucificado, la Ascensión, S. Antonio abad y S. Bernabé. Otra que había con el título de santa Marina en Ganguren, y servia de ayuda de parroquia, se profanó en 1782.

Las diferencias que se aprecian entre las descripciones anotadas y el Galdakao actual son importantes. Primeramente llama nuestra atención la riqueza faunística que había en sus montes: jabalíes, lobos y corzos. En cuanto a la forma de vida, se sustentaba principalmente en la agricultura, pero vemos que también existía una incipiente industria basada en las ferrerías y los molinos (13). También conocemos la existencia de profesionales libres, pues las actas de escribanos asentados en Galdakao así nos lo confirman al hablar de peritos y maestros de obras. Pero en realidad se trataba de una población eminentemente rural, por lo que hablar del número de personas dedicadas al sector terciario resultaría anecdótico.

Respecto al número de habitantes, Albiz, autor del primer proyecto de iglesia, nos proporciona una cifra de 704 personas para el año 1791, Iturriza 800 en 1793 y el *Diccionario* dice que había 854 en el año 1802. El crecimiento demográfico por tanto fue bastante desi-

Bigarren lanetik deskribapen osoa hartuko dugu, biztanle kopuruari dagokioenean izan ezik, aurrekoa baino askoz ere argiagoa delako. Argitarapen hau 1802.ekoa da, eta foruzaleek bere aldian lar gogoko ez bazuten ere (127), gaur egun ikuspuntu ederra eskeintzen digu gure herriek XVIII.eko azkenaldera zuten egoeraren berri emateko:

Alde handia dago hemengo deskribapenaren eta gaur egungo Galdakaoren artean. Lehenego eta behin basoetako piztien aberastasunean: basurdeak, otsoak eta oreinak. Bizibideetan, oinarri nagusia nekazaritza zen, baina badirudi bazela ere zelan edo halako industria, hasikinetan, burdinolen eta erroten inguruan (13).

Bazenden, antza, ogibide libreak ere, Galdakaon zeuden eskribauenean perituak, eraikuntza-maisuak, eta abar zirela aipatzen da eta. Baina gehien bat nekazari-jendea zen ia dena.

Bizilagun-kopurua dela eta, Albizek, eleizaren lehenengo egitasmoaren egileak, 704 markatu zituen 1791.erako, Iturrizak 800 1793.erako eta *Diccionario*...k 854 1802. urtean. Aldiotarako, beraz, biztanleen hazkuntzak gorabeherak izan

gual durante estos períodos, pues de ninguna de las maneras se mantiene entre la segunda y la tercera fecha. No es objeto de este trabajo la demografía de Galdakao, simplemente queremos incidir en que la Guerra contra la Convención y la crisis económica de finales del siglo XVIII, pudieron influir en el mantenimiento del ritmo de crecimiento del primer período. Pero de cualquier modo las exiguas cifras citadas, no deben de extrañarnos ni llevarnos a engaño, ya que Bilbao, que en esa época era una potencia comercial, tenía menos de 9.000 habitantes (128). Por las contribuciones de 1818, cuyo pago personal se hacía en función de las rentas individuales, sabemos que había diecisiete propietarios con más de 200 ducados de renta anual, los que no llegaban a esta cifra eran veintiocho, el resto de la población, resultaban ser inquilinos (32). Los nombres de los mayores propietarios, son los que generalmente figuran ejerciendo de fieles o bien firmando las actas de las juntas de anteiglesia en calidad de testigos (anexo núm 1).

zituen, bigarren eta hirugarrendata hoién artean ez dagoelako loturarik. Lan honetan ez dugu Galdakako demografía aztertuko baina zera aipatu behar dugu, Konbentzioko Gerrak eta XVIII. mendearen azkeneko krisialdi ekonomikoak izango zutela eragina lehengo aldiko hazkuntza-erritmoan. Dena dela, aipaturiko kopuru xeheok ez dira harrigarriak izan behar. Bilbok, esate baterako, urteotan potentzia ekonomikoa izanik, 9.000 biztanletik behera zeukan eta (128). 1818.eko kontribuzioetatik, herritar bakoitzaren errenten arabera ordaintzen zirena, Galdakaoan urteko 2.000 dukateko errentatik gorakoak 17 jabe zirela dakigu, diru-kopuru hau jaristen ez zutenak hogeita zortzi ziren eta beste biztanleak errenterua ziren (32). Jabe nagusien izenak, gehienetan, piel kargua betezen agertzen ziren edo eleizateko batzar-agiriak sinatzen, lekuko moduan (1. eranskina).



Calzada a la iglesia de Elexalde.

Elexalderako Eleizbidea.

Ignacio de Albiz, además de las trazas de la nueva iglesia, realizó un mapa *que demostrase con toda claridad la anteiglesia, el asiento o sitio de su iglesia parroquial, las barriadas y distancias de estas a aquella*, con ese objeto estuvo durante el verano de 1791 varios días recorriéndola *para formar el mapa o plan que tiene encargado*. Ese documento ha podido conservarse hasta hoy y podemos utilizarlo para conocer con más exactitud detalles de entonces (9).

En base al mapa, Albiz su autor, hace una descripción exhaustiva de Galdakao, enumerando las distancias a salvar desde los puntos de origen hasta Elexalde, los lugares de ubicación de los puentes, describiendo con todo detalle los caminos que atravesaban el pueblo, cuales eran las zonas habitadas por aquel entonces, así como la denominación de sus barrios y algún otro detalle:


Empieza por la parte del Poniente en un Puentesillo confinante con el barrio llamado Jugo y la República de Echevarri. Sigue después hacia el oriente en curso de la Ría con los montes de ambos lados del Camino Real en distancia de dos leguas largas hasta otro Puentesillo que se halla en este termino. De modo que pasando por su mitad un río caudaloso las gentes del un lado suelen tener que andar rodeando por los caminos y llegando al Real desde aquí es la mayor fatiga para todos hasta la Iglesia Parroquial mas de la respectiva distancia de los Barrios, pues desde el Barrio de Jugo hay la distancia de dos horas y media hasta la Iglesia. Desde Arteta y Ordeña otro tanto. Desde Oinquina Lecue y Aperribay una hora a paso largo. Desde Bengoechea, Urizar, Aguirre, Usansolo y Gorosibay tres quartos de legua. Desde Labeaga, Urgoitia, Bequea, Eizaga y Zuazo cerca de tres quartos de legua. Desde Urreta y Uguesano, media hora. Desde el barrio de Gumucio una hora y de la casa nueva ora y media. Desde Torrezabal, Plazacoechea, Zamacona y Bidaurreta poco menos de media hora y desde Zavala Goicoechea, Basave, Altamira y Olabarrí un quarto de hora...

Por cuatro puentes se cruzaba el Ibaizabal en 1791: en Unkina, frente a Urgoiti, en Torrezabal y finalmente en Mercadillo, en las cercanías de estos existieron casas-torre y molinos. El del límite occidental de Galdakao, no llegaba a cruzar el Nervión, sino que servía para salvar el riachuelo que nace en los manantiales de Aretziturri justo bajo la cima del Ganguren y que marcaba los límites de Galdakao y Etxebarri. El camino real cruzaba Galdakao de oeste a este en toda su extensión, desde Bilbao por Etxebarri se adentraba en Galdakao por el puente antes mencionado. Tras pasar junto al palacio de Aperribai y Bengoetxe y ascender después la pendiente que existía en Muguru, entraba en la plaza entre la ermita de la Cruz y el edificio del ayuntamiento, venta y taberna. Aquí cruzando otro pequeño puente, se salvaba el pequeño río Rekalde para dirigirse por el arbolado y

Ignacio de Albizek, eleiza berriaren egituraz gainera, mapa bat egin zuen, *que demostrase con toda claridad la anteiglesia, el asiento o sitio de su iglesia parroquial, las barriadas y distancias de estas a aquella*. Hau egiteko 1791.eko udan zehar egun batzuk batera eta bestera ibili zen, *para formar el mapa o plan que tiene encargado*. Agiri horrek gaur egunera arte iraun du eta orduko zehaztasunak hobeto ezagutzeko erabil genezake (9).

Mapa horretan oinarrituz, Albizek, bere egileak, Galdakaoren deskribapen zehatza egiten digu, hasiera-guneetatik Elexaldera bitartean egin beharreko tarteak zehaztuz, zubien kokaguneak azalduz, herria zeharkatzen zuten bideak zehatz deskribatuz, orduan biztanleak zituzten guneak zeintzuk ziren esanik, auzoen izenak, eta abar:

1791.ean lau zubi ziran Ibaizabal alderik alde zeharkatzeko: Unkinan, Urgoitiren aurrez aurre, Torrezabalen eta Mercadillon. Zubion inguruetan torretxeak eta errotak ziren. Galdakaoren mendebaldekoak ez zuten Nerbioia zeharkatzen, baizik eta Aretziturriko uretan jaiotzen zen errekatxoa, Gangurenpean bertan eta Galdakaoren eta Etxebarriren arteko muga markatzen zuen. Galdakaok mendebaldetik ekialdera zuen errepidea. Bilbon hasi eta Etxebarrin zehar zubi horretatik zetorren. Aperribai eta Bengoetxeko jauregien ondotik igaro eta Mugurun zegoen gainetik plazara zetorren. Gurutzeko ermitaren eta herriko etxearen, bentaren eta tabernaren artean. Hemen beste zubi txiki batetik Errekalde errekatxoaren gainetik zugaztitik eta Zabaleako eta Olabarríko etxeetatik Urgoitiko jauregira



Galdakao 1791 artean
SGE. Pag. 136. Aizaya

Galdakao en 1791
SGE. Pae. 136. Aizaya

casas de Zabalea y Olabarri hacia el palacio de Urgoiti, donde se deshacía en dos ramales, el de Gumucio hacia Durango y el que iba por la ferrería de Usansolo hacia Arratia. Por supuesto que además del camino real, existían otros secundarios y los puentes citados se construirían para dar servicio a esos caminos. En el mapa (9) podemos apreciar cómo desde Bengoetxe, cruzando por el puente de Mercadillo, había otra vía que por Zuazo seguía hasta el puente de Torrezabal, donde se unía al camino que bajaba desde la Cruz. En Usansolo y por su puente se accedía a Unkina, Lekubaso y Ordeña. Muchos de estos caminos serían *eleizbideak* (122). En la revista *Kobie*, del Grupo Espeleológico Vizcaíno (150), leemos cómo los vecinos de Arteta, utilizaban para transportar a sus difuntos a la antigua iglesia y cementerio de Elexalde, el camino que partiendo de esa zona y pasando por Basabal, cruzaba el Ibaizabal por Torrezabal. De Muguru partía otro *eleizbide* (122), que por Egiá y Errekalde, llegaba a Elexalde, desde Olabarri subía otro y un tercero nacía en Zabalea. Por estos tres caminos se podía acceder a la parroquia desde cualquier barrio de la anteiglesia. Es de suponer por tanto que por ellos se acercarían, desde las diferentes zonas del municipio, todas las personas que subían hasta ese lugar.

3.2 SOLICITUD DE TRASLADO Y NUEVO TEMPLO

Las primeras noticias que encontramos referentes al asunto del traslado y construcción de un nuevo templo en Galdakao son bibliográficas, y están fechadas en 1791. Sin embargo los datos que hemos podido encontrar en los diferentes archivos resultan algo posteriores, del año 1792 concretamente, pero haciendo referencia a una petición anterior parece que extraviada (4).

La crisis de las ferrerías fue causada por el encarecimiento del carbón vegetal, así como por la fuerte competencia existente en las colonias americanas entre el hierro sueco y el producido en Bizkaia. La ínfima inversión de los beneficios obtenidos con el comercio marítimo bilbaino y la sequía que hubo a finales del siglo XVIII originaron gran cantidad de desocupados, pues la industria no era capaz de dar trabajo a los excedentes demográficos procedentes de los caseríos o de las ferrerías que se iban cerrando. El número de pobres de un lugar concreto, estaba directamente relacionado con la existencia en el mismo de hospitales, ferrerías, o conventos, ya que la carencia de industrias (ferrerías) disminuía el número de mendigos, pero la existencia de hospital o conventos hacía que aumentara su número en unos porcentajes muy apreciables (132). Más adelante veremos, cómo el gobierno de la anteiglesia fue sensible a este problema, al querer ocuparse de los que llamaban pobres transeúntes creando para ellos un lugar de habitación (83).

El paro creciente, además de crear bolsas de pobreza, fomentó la xenofobia, en una época precisamente en la que la avalancha de gentes de toda clase, condición y procedencia era imparable. La

desberdinen artean boterea hartzeko burruka zen berau. Agintarien taldeko kideen artean zegoen burrukaz gainera, eskekoen eta lapurren ugaltzea zetorren, eta guzti honen ondorio zuzeneko bezala gutxien zeukaten gizataldeetan zabal zebilen miseria larria (131). Eleiza berria eraikitzeko giro nahasteborrastetsua beraz.

Uzta txarrek eta merkatari batzuen artean izan zen krisialdiak, Bilboko ospitale eta egoitzak jendez gainezka egin arte bete zituzten, asko eta asko zirelako batez ere Bilbora zetozenak, uri hau zelako lana bilatu edo bizimodua ateratzeko modua eskeintzen zuen tokia, beste eskualdeetan janari bila zebiltzatenentzat. Egoitzok, gehien bat, herri-erakundeek sortuak eta euren mantenukoak zirenez gero, dirubideak karitatetik eta zergetatik jasotzen zituzten. Krisialdi ekonomikoek, beraz, euren diru-iturrietan eragin handia zuten, aldi txarretan murriztu egiten zirelako, batetik, eta 1788.aren eta 1792.aren artean, bestetik, inflazio oso gogorra izan zelako.

Ikazkinek eginiko ikatzaren garestitzeak burdinolen krisialdia ekarri zuen, Ameriketako eta Suediako burdinaren eta Bizkaikoaren arteko konpetentziarekin batera. Bilboko itsas-merkataritzak izan zituen onura ekonomikoak berriz ere inbertitu ez zirenez gero eta XVIII. mendearen azken urteetako sikateak, langabetuen kopurua nabarmen ugaritu zuten. Industria ez zen ia gai baserrietatik zetozen soberakin gizalagunei edo lur jota gelditu ziren burdinoletatik zetozen langileei zeregina emateko. Toki jakin bateko txiroen kopurua bertako ospitale, burdinola eta komentuen kopuruarekin bateratsu zihoan, industriaren (burdinolen) ezak eskekoen murriztea zekarrelako, baina ospitaleek edo komentuek euren kopurua nabarmen igotera zuten (132). Aurrerago ikusiko dugu zelan gure eleizako agintariek arazo honen aurrean sentsibilitatea agertu zuten, batetik bestera zebilen eskekoentzat egoteko toki bat beren beregi prestatu zuten eta (83).

Langabetuak ugaritzearekin, probrezian bizi zirenen taldea handitu eta xenofobia ere larritu egin zen, gizamaila, ezaugarri eta jatorri desberdinetako jendetza handiak etorri zirelako.

afluencia de franceses fue masiva, sobre todo a partir de 1793 cuando las persecuciones religiosas en Francia adquirieron mayor rigor. Esto ocasionó la huida de multitud de clérigos y seglares. Muchos venían de paso, pero otros se quedaron tanto en Bilbao como en el resto de las villas y anteiglesias del territorio. A Bilbao hubo momentos en que llegaron hasta 1.300 refugiados, teniendo en cuenta la población estable de la villa por entonces, no resulta difícil hacerse una idea de los problemas que debió ocasionar tal afluencia. Galdakao no pudo permanecer ajeno a todo esto, pues sabemos que también llegó a asentarse algún clérigo (133).

La conocida como Guerra contra la Convención, fue declarada el 7 de marzo de 1793 por la Convención francesa, y el 21 del mismo mes por el monarca español Carlos IV. El gobierno de Godoy dividió la frontera pirenaica en tres frentes, oriental, central y occidental, en el que entraban las defensas de Gipuzkoa y Nafarroa. La lucha adquirió tintes de nueva cruzada contra los horrores y excesos de la Revolución y la propagación de sus ideales.

La campaña de 1793 trajo victorias para los ejércitos realistas, para Bizkaia resultó aquel un año tranquilo en lo referente a una participación directa en la guerra, ya que se ventilaba lejos. No obstante, las autoridades forales se preparaban para hacer frente al conflicto, suscribiendo empréstitos para obtener fondos, reforzando las fortificaciones, adquiriendo armas y organizando la milicia. Este hecho era fuertemente contestado desde los sectores populares, pues les separaba de sus obligaciones diarias, y por eso se recurría a la leva forzosa de desocupados y maleantes, alistándoles a la fuerza en las tropas del Señorío (112). En este sentido, la preocupación partía incluso desde los propios ayuntamientos, vigilando las tabernas públicas, en el sentido de poner trabas a los posibles algarabías que en ellas pudieran producirse (17).

La primavera de 1794 trajo unos resultados opuestos a los del año anterior, Gipuzkoa fue prácticamente invadida y en Nafarroa su capital temía porque veía la guerra a sus puertas. En Bizkaia la amenaza estaba también muy cercana, sobre todo desde que la sensación de desaliento se extendió por los ejércitos de aquende las fronteras. La táctica de muchos gene-

Frantzesak aldraka etorri ziren, 1793. urtetik aurrera gehien bat, Frantzian erlijio-persekuzioak indarra hartu zuten eta larritu egin ziren urteetan batez ere. Eleizgizon eta seglar askok ihes egin behar izan zuten. Batzuk aldi baterakoak ziren, baina beste batzuk Bilbon zein lurraldeko beste uri eta udalerrietan gelditu ziren. Bilbon aldikada batzutan 1.300 errefuxiatutik gora izan zen. Sasoi haretan uriko biztanlego finkoa kontuan hartuta, jendetza honek ekarriko zituen gorabeherak argi daude. Galdakao ezin, bada, giro honetatik urrun ibili, badakigu eta eleizgizonen bat ere herriratu zela (133).

Konbentzioaren aurkako Gerra Frantziako Konbentzioak deklaratu zuen 1793.eko martxoaren 7an, eta hil horretan bertan Carlos IV Espainiako erregeak ere gauza berbera egin zuen. Godoyren gobernuak Pirinioetako muga hiru zatitan banatu zuen: ekialdekoa, erdikoa eta mendebaldekoa, beronetan Gipuzkoako eta Nafarroako defentsak hartuaz. Burruka honek gurutzada itxura hartu zuen, Iraultzaren eta beronen lazgarritasunen eta idealen hedakuntzaren aurka.

1793.eko kanpainiak erregezaleen garaipenak ekarri zituen, eta Bizkaian urte hori lasai samarra izan zen gerra arazoetan behintzt, gogortadeak beste inguru batzutan zirelako. Hala ere, Foru-agintariek antolakuntzak egin zituzten arazoari aurre egiteko, diru-hornidurak lortzeko zorrak atereaz, defentsak indartuaz, armak zuzenduaz eta gudarosteak osatuaz. Herriko jendeak ez zuen hau begi onez ikusten, egunoroko lanetatik aldentzea ekartzen zutelako arazook, eta horregaitik derrigorrezko soldaduska jarri zen langabekoentzat eta arloteentzat, hauek derrigorrean Jaurerriko gudarosteetan sarreraziz (112). Ardurarik handienetakoa baina udalena izan zen, tabernak eta zaindu egin zituztelako, sor zitezkeen asaldakuntzak ahalik eta arinen zuzentzeko asmoarekin (17).

1794.eko udaberriak aurreko urteko emaitzen guztiz aurkakoak ekarri zituen, Gipuzkoa ia oso osorik hartua izan zen eta Nafarroako uriburuan beldur ziren gerratea ateondoan zutelako. Bizkaian mehatxu hau ere hur-hurrean zegoen, eta batez ere mugaz honaindiko gudarosteetan nagusitu egin zen etsipena. Jeneral askoren jokabidea frantzesen aurka

rales fue la de evitar cualquier choque con los franceses. Cuando las tropas francesas se acercaban a los límites de Bizkaia, la Diputación consciente de que a falta de un ejército regular y de la nula ayuda que estaba obteniendo de la corona, debía defenderse a sí misma y organizó mal que bien una línea defensiva desde Ondarroa hasta Kanpanzar. Los franceses no entraron en Bizkaia en ese año de 1794, pero tampoco esta muy claro que quisieran hacerlo. No debía ser agradable el asentamiento o el paso de tropas para los habitantes de las zonas escenario de la guerra, pues además de los inconvenientes que suponen un aumento masivo de la población, hay documentados excesos cometidos por los soldados (14).

El conflicto bélico tuvo su precio. La Diputación tuvo que solicitar préstamos al rey y a particulares, aumentó los impuestos en ciertos productos y quedó fuertemente endeudada para organizar su defensa. En julio de 1795 los franceses invaden Durango y Bilbao pero ante la apatía y la inacción del ejército regular y del ministro Godoy, la Diputación optó por capitular siguiendo órdenes del rey.

Al firmarse la paz de Basilea, el 22 de julio de 1795, los franceses se retiraron de Bizkaia, pero las secuelas de la guerra permanecieron como un pesado lastre, secuelas de división social e ideológica, además de secuelas económicas. Por su parte, el bandolerismo rural resultaba alarmante, hasta el punto era así, que la Diputación tuvo que tomar severas medidas para acabar con él. En definitiva una época de crisis en la que afloran problemas y divisiones internas no resueltas, que se agravarían con el paso del tiempo y que traerían resultados muy negativos.

Ejemplo de estas disensiones fue el proyecto del llamado Puerto de la Paz, con cuya construcción se pretendía contestar al monopolio bilbaino y su potente burguesía. Otro ejemplo sería la Zamakolada, nombre con el que se conoce la revuelta que se organizó contra el establecimiento de un servicio militar obligatorio, que no existía en Bizkaia y que llegó a entenderse como contrafuero (113).

A partir de 1807 las desventuras vuelven a empezar, las tropas francesas inician su penetración y en enero de 1808 llegan algunas a Bizkaia, quedando

burrakak ahalik eta gehien aldentzea izan zen. Bizkaiaren mugetatik hur zeudenean, Foru Aldundiak gudaroste erregularra ez zegoenez gero eta erregearen aldetik laguntasunik batere jaso ez zuenean, bere burua defendatu eta gutxi-asko Ondarroan hasi eta Kanpanzarrera bitarteko defentsa-lerroa antolatu zuen. Frantzesak 1794.era arte ez ziren Bizkaian sartu, baina ez dirudi hori egiteko gogo handirik zutenik. Gerra izan zen tokietako biztanleentzako gudarosteak inguruan ezartzen zirela ikustea edo etxe aurretik igarotzen zirela ikustea ez zen gauza samurra izango. Gainera ekintza hauek biztanlegoaren handitzea zekarten eta, agirietan agertzen denez, soldaduek gehigikeria itzelak egiten zituzten (14).

Gudak izan zuen bada bere ordaina. Foru Aldundiak erregeari eta norbanakoei mailebuak eskatu zizkien. Produktu batzuen gaineko zergak asko ugaritu ziren eta zor handia izan zen herri-erakundearentzat bere defentsa antolatzea. 1795.eko uztailean frantzesek Durango eta Bilbo hartu zituzten. Gudaroste erregularrak eta Godoy ministroak agertu zuten interes falta ikusita, Foru Aldundiak erregearen aginduei jarraituz amore emateko erabakia hartu zuen.

Basileako bakea sinatzerakoan, 1795.eko uztailearen 22an, frantzesek Bizkaitik alde egin zuten, baina gerraren ondorioek jarraipena izan zuten, pisu handiz, gizartearen eta ideologiaren aldeko banaketan eta utzitako eragin ekonomikoetan. Herrietako lapurketak, beste alde batetik, ikaragarriak ziren eta Foru Aldundiak neurri gogorak indarrean jarri behar izan zituen hauei aurre egiteko. Garai hau, beraz, konponketarik izan ez zuen arazo eta banaketa-aldia izan zen, krisialdi gogorra, eta urteak joan eta urteak etorri hareagotu egin zen emaitz oso txarrak ekarriaz.

Eztabaida gogorron adibide moduan Bakearen Portua zeritzan egitasmoa dago. Berau eraikiaz Bilboren monopolioari eta bertako burguesia indartsuari erantzuna eman nahi zioten. Beste adibide bat Zamakolada izan zen. asaldakuntza hau derrigorrezko soldadutzaren aurkako ekintza moduan sortu zen, Bizkaian ez zegoelako holakorik eta Foruen aurkako zela uste izan zutelako (113).

1807. urtetik aurrera berriren berriz hasi ziren gorabeherak. Frantziako gudarosteak etorri egin ziren berriro eta 1808.ean Bizkaian sartu batzuk,

acantonadas en Orduña, Elorrio y Durango. Esto se traduce en nuevos desembolsos de los municipios para cubrir los gastos de suministros y alojamientos para las tropas. Eran los preámbulos de la llamada Guerra de la Independencia, por cuya causa en Galdakao, se mantenían paralizados los proyectos constructivos del nuevo templo.

Con respecto a los gastos por suministros, el *consejo municipal* de la anteiglesia se quejaba de lo importantes que resultaban para el municipio, por su elevada cuantía, las cantidades a que ascendía la entrega de raciones a los soldados franceses a su paso en actos de servicio. Parece ser que estos suministros eran exigidos sin la correspondiente entrega por parte de los soldados de los vales de pago del servicio. Además el Comisario de Guerra excusaba el pago ya que los soldados solamente estaban autorizados a proveerse en Zornotza. Llegó a tales extremos el asunto que se solicitó al Consejo de Provincia el cierre y supresión de la venta-tienda de la Cruz, para que de esta manera ni el ventero ni ningún vecino se viera coaccionado por los soldados (26).

Urduña, Elorrio eta Durangon egotokiak hartuaz. Udalerriek, beraz, gudarosteontzako hornidura eta etxea ordaintzeko beste diru-ezarketa batzuk egin behar izan zituzten. Independentziako Gerra izenez ezagun den horren hasikinak izan ziren hauek. Hau zela eta Galdakaon eleiza berria eraikitzeko egitasmoa geldí zegoen.

Hornidura-gastuak zirela eta, gure eleizateko udal batzak, bere kexa agertzen zuen udalarentzat garestiegi zelako Frantziako soldaduen mantenua zerbitzuan zeuden bitartean. Badirudi hornidura hauek eskatu bai, baina gero soldaduek zerbitzuaren pagua ziurtatzeko behar ziren agiriak eman ez. Gerrako Komisarioak, gainera, ordainketa hau ez egiten uzten zien, euren hornidura Zornotzan baino ezin zutelako egin legez. Arazoa hain larria izan zen ze Lurralde-Kontseiluak Gurutzeko benta eta denda itxi eta kentzeko eskatu zuen. Honetara bentako jabeak eta auzoek ez zuten soldaduen inongo mehatxurik jasoko (26).



Plano de la batalla de Zornoza (Amorebieta) del día 31 de Octubre de 1808.

Zornotzako (Amorebieta) batailaren planua, 1808.eko urriaren 31n.

Una vez comenzada la guerra, el agobio económico debió de ser mayor, ya que el Consejo de Provincia mandó vender la plata de las parroquias. A pesar de ello, desde el consejo municipal de Galdakao, se contestó a la orden en el sentido de que ni se había vendido alhaja alguna en la parte del año transcurrido de 1811, ni se tenía intención de hacerlo (26).

Se dice que los planes de Napoleón eran anexionar a su imperio los territorios de la Euskal Herria peninsular, o en su defecto que se declarasen neutrales, creando así una zona a modo de *tapón* para el resto de Francia. Murat prometió, guardar y conservar los fueros vascos. Thiers manifestaba una profunda admiración por todo lo concerniente a la cultura y costumbres vascas. De cualquier modo, fuera por miedo, fuera por otras razones, el paso de las tropas francesas fue un paseo. Por otra parte al pasar Fernando VII por Gasteiz camino de Baiona, fue cumplimentado por las autoridades de Bizkaia, las mismas que más tarde aceptan al monarca impuesto José Bonaparte. La actitud de Bizkaia había cambiado con el asentamiento de las tropas y sus excesos, además del trastorno que se había generado en el normal discurrir de la vida diaria.

En todo este asunto, no fue menor la actitud beligerante que tuvo el clero. Recordemos que en la Guerra contra la Convención fue del mismo modo. Las represalias de José Bonaparte tampoco fueron pequeñas, expulsiones de religiosos, saqueos, desamortización y venta de los bienes del clero regular destinados a extinguir la deuda del estado... Respecto a la ley general de desamortización, veamos que dice en alguno de sus artículos:

Artículo 1º: Todas las órdenes regulares, monacales, mendicantes, y clericales existentes en los dominios de España quedan suprimidas.

Artículo 4º: los bienes que pertenecen a los conventos quedan aplicados a la nación.

Para proceder a todo esto, se realizaron inventarios que eran recogidos en un registro titulado de Bienes Nacionales. No es que el clero regular de Bizkaia tuviese la riqueza de los grandes conventos de España, pero el caso es que de hacer tabla rasa, salieron perjudicados y más pobres de lo que eran. En cuanto a Galdakao, aunque no poseía ningún convento sí existían en su jurisdicción propiedades

Behin gerra hasita, larrialdi ekonomikoa hareagotu egin zen, Lurralde-Kontseiluak parroketako zidarra saltzeko agindua eman zuen eta. Hala ere, Galdakaoko udalbatzak zera erantzun zion aginduari: 1811. urtean zehar ez zuela inongo zidar-bitxirik saldu, eta ez zuela halakorik egiteko asmorik ere (26).

Batzuren ustez Napoleonen asmoa hegoaldeko Euskal Herria bere Inperioarekin bat egite izan zen, edo hau egin ez izatekotan lurraldeon neutraltasuna lortu behintzat, honetara enparaduko Frantziarentzat tapoi antzeko lurralde bat sortuaz. Muratek euskal foruak zaindu eta gordeko zirela agindu zuen. Thiersek euskal kulturarenganako eta euskal ohiturenganako atxikimendua azaldu zuen. Dena dela, beldurarrren zein beste arrazoi batzuk zirela, Frantziako soldadu-taldeen ez zuten oztoporik izan gure lurraldea zeharkatzeko. Gainera, Fernando VII.a Gasteizetik Baionara bidean igaro zenean, Bizkaiko agintariak agur egitera joan zitzaioten. Agintariok izango ziren beranduago José Bonaparte errege onartu zutenak. Bizkaiak hartu zuen jarrera gudarosteak ezarri ahala eta hauen gehiegikeriekin aldatuz joan zen, kontuan izanda gainera egunoroko bizitzan ekarri zituzten gorabeherak eta trabak.

Eleizgizonak ere aurrez aurre jarri ziren. Konbentzioaren gerran ere antzeko zerbait jazo zen. José Bonaparteren mendekua larria izan zen, eleiz-gizonak erbesteratu, lapurketak egin, eta estatuaren zorrak kitatzeko eleizgizon erregularraren ondasunen desamortizazioa eta salmenta indartu ziten... Desamortizazio-lege orokorra dela eta, hona hemen beronen artikulua batzuek dakartena:

Hau guzti hau egiteko, Nazioaren Ondasunen lerrokategia izenekoan jabetza guztiok zerrrendaka jaso ziren. Bizkaiko eleizgizon erregularrek ez zituzten Espainiako komentu handietako aberastasunak, baina guzti-guztiei lege hau zabaldu zitzaientean, aurretik zuten baino askoz ere kalte handiagoa jaso zuten eta pobregoa gelditu. Galdakaon ez zegoen komenturik baina bai halakoetako jabetza batzuk

de éstos. Por ejemplo en el barrio de Jugo poseían una finca las monjas de la Encarnación, y en Bengoetxe tierra de pan sembrar de las monjas de la Esperanza (26). El 20 de agosto de 1811, se celebró subasta para enajenación de fincas rústicas, entre las cuales figuraba *una tierra en Galdácano, que producía una renta anual de 209 reales de vellón y se saca a subasta en 3.762 reales*. El problema para el clero regular vendría cuando volvieran de nuevo a sus conventos, muchos de ellos destruidos y desvalijados.

También hubo de enviarse lista de los religiosos que vivían en el municipio, así se hizo relacionando cinco ex-franciscanos residentes en Galdakao, todos ellos nacidos en el municipio y procedentes del convento de San Francisco de Bilbao, vivían con sus padres, y alguno ayudaba en su ejercicio al cabildo parroquial (25). Del mismo modo se hizo con los curas que integraban el cabildo diciendo que eran cinco, aunque uno residía en la Colación de Bedia (114). Los patronos también debían enviar un informe de los gastos e ingresos que obtenían por el producto de los diezmos que rendían sus patronatos (25). Pero todo esto no era una novedad del reinado de José I, pues ya en 1805 era ... *intención de la Real Hacienda sacar el mejor partido posible de las rentas y beneficios de los frutos que rinden las iglesias*, por lo cual ya se habían solicitado informes similares a los que ahora se pedían (18).

Las nuevas leyes emitidas por José I, pretendieron reorganizar y racionalizar la vida del país. A este respecto, sabemos que se emitió un decreto por el cual

Las Provincias Vascongadas deben pagar 12.000.000 de rs. por el diezmo o contribución en especie correspondiente al clero, a Vizcaya le corresponde pagar la tercera parte, y a la Vicaría de Arratia 15.623 r.v., a Galdácano, Bedia y Echévarri juntas por haber sido un solo patronato 5.118 r.v. (22).

Los cinco años que duró la Guerra de la Independencia fueron un periodo de una dureza inaudita, ocupación, asaltos de guerrilla, intentos de conquista... además de bandolerismo, saqueos, hundimiento de las actividades mercantiles, agrarias y sobre todo una fuerte presión fiscal. Todo ello se traduce en pobreza y división ideológica entre la población. Respecto al bandolerismo, parece ser que en las vías de acceso a Bilbao abundaban en número,

bere mugen barruan. Esate baterako, Jugun Enkarnazioko lekaimeek lur bat zeukaten eta Bengoetxen Esperantzako monjek gari-sail batzuk (26). 1811.eko abuztuaren 20an, lursail hauek saltzeko enkantea egin zen, eta besteak beste Galdakaoko bat agertzen zen, *una tierra en Galdácano, que producía una renta anual de 209 reales de vellón y se saca a subasta en 3.762 reales*. Eleizgizon erregularrentzat arazorik handiena komentuetara bihurtu zirenean etorri zen, eurotariko asko eta asko alperrik galduta eta lapurtuta aurkitu zituztelako.

Udolean bizitokia zuten eleizgizon eta emakumeen zerrenda ere bialdu behar izan zuten, eta Galdakaon bizi ziren bost frantziskotar-ohien berri eman zen honetara, bostok udalean jaioak eta Bilboko San Frantziskoren komentutik etorriak. Euren gurasoenean bizi ziren eta batek edo bestek eleiz-batzarrari laguntza ematen zion (25). Era beretsuan jokatu zen batzar horretako abadeekin. Bost zirela azaldu zuten, nahiz eta hoietako bat Kolazinon bizi (114). Patroiek ere euren patronatuetatik jasotako hamarrenek emanikoaren gastuen eta diru-sarrereren berri eman behar zuten, txosten baten bitartez (25). Baina hau ez zen bitxikeria izan José I.aren agintaritzan, 1805.ean bertan bere asmoa eleizen emaitzetarik onura ateratzea zelako, ... *intención de la Real Hacienda sacar el mejor partido posible de las rentas y beneficios de los frutos que rinden las iglesias*, eta horretarako bazituzten eskatuak oraingo hauen antzeko beste txosten batzuk (18).

José I.aren ezarritako lege berriek herri-bizitzaren antolakuntza eta arrazionalizazioa zuten helburu. Izan zen, esate baterako, agindu bat hamarrenen gaiaz,

Independentziako Gerrak iraun zuen bost urteak gogortade handikoa, okupaziokoa, gerrillen erasoetakoa, konkistatzeko ahaleginetakoa... izan zen, eta gainera lapurketak, harrapaketak, merkataritzaren, nekazaritzaren porrotarena eta batez ere presio fiskal handikoa. Horregaitik, bada, pobrezia eta banaketa ideologikoa ziren nagusi herritarren artean. Lapurrak direla eta, badirudi Bilbora bidean oso ugariak zirena, eta inguruko orografiak eta batera

la orografía del terreno y lo muy transitado de los caminos favorecían su labor. No es de extrañar entonces, que en las peticiones que hemos transcrito más arriba, fuera lugar común denominar a Elexalde y a sus caminos de acceso como *zona peligrosa*. De esa época existe documentación referente a abundantes autos promovidos por robo y varios por asalto en el *camino real de Galdacano*, o en sus tabernas y caseríos (14-19-23).

Lo que queremos decir con todo esto es que la situación bélica y todos sus inconvenientes, no favorecieron en nada el devenir de la vida desde que nació la idea de levantar nuevo templo. La guerra contra Napoleón había terminado, pero las consecuencias durarían aún bastantes años más.

eta bestera zebiltzatenen kopuru handiak laguntasun handia ematen zietela. Ez dira harritzekoak bada gorago ekarri ditugun eskabideetan sarri aipatu izana Elexalde eta inguruko bideak arrisku handiko toki moduan. Garaiko agirietan sarri daude lapurketa dela eta edo eraso Galdakaoko errepidean, *camino real de Galdácano*, eginiko ekintzen ondorioz eragindako autoak, bai tabernetan eta baserrietan ere (14-19-23).

Aurreko guztiarekin, bada, zera esan nahi izan dugu, egoera gerratekoa izan zela eta honek dakartzan oztopo guztiekin. Ez zegoen beraz eleiza berria eraikitzeko goga bultzatuko zuen inguru egokirik. Napoleonen aurkako gerra amaitua zen, baina beronen ondorioak urte askoan luzatuko ziren.

Fachada principal

IV

**EL SEGUNDO PROYECTO,
TRASLADO DE LA PARROQUIA**

**BIGARREN EGITASMOA,
PARROKIAREN ALDAKUNTZA**

4.1. CANTEROS Y ARQUITECTOS. LAS NORMAS DE LA ACADEMIA DE SAN FERNANDO

Desde antiguo, artistas procedentes del norte de Europa, pintores, escultores y *constructores*, recalaban en Bilbao y Bizkaia. Durante los siglos XVII y XVIII, se convirtió en plaza cerrada para los grupos de *constructores* vascos y montañeses venidos de Transmiera. A lo largo de estos dos siglos, las principales obras de la provincia fueron realizadas por gentes procedentes de Gernika, Markina, Bolibar, Aiala y valles guipuzcoanos, además de Liendo, Rasines y Limpías. La unidad de estilos en la mayoría de las obras, resulta por ello evidente (134).

El siglo XVII fue una buena época para la arquitectura en Bizkaia, se construyó mucho y bien. Las exuberancias del estilo de Churriguera son escasas en esta zona, pues los gustos imperantes eran más austeros, aunque no resulta extraño ver trabajos de otros artistas tales como Ignacio de Ibero o fray Marcos de Santa Teresa junto a otros tracistas y maestros de obras locales de la talla de Capelastegui, Orueta e Iturburu (135). La tradición canteril de Bizkaia fue muy importante y aun estaba viva, eran capaces de trazar edificios, puentes, retablos, presas y un largo etcétera y realizarlos con una gran calidad técnica y estética.

Pero los nuevos procedimientos impuestos por el Consejo de Castilla, referentes a las trazas y construcción de nuevos edificios, hicieron desaparecer paulatinamente a los canteros de las obras de promoción pública. El neoclasicismo se impuso, acabando con la larga permanencia de los estilos barroquizantes. La nueva generación de arquitectos salidos de la Academia de San Fernando era gente muy preparada técnicamente, pero se construía mucho y las promociones de la Academia resultaban insuficientes para poder estar presentes trazando y dirigiendo tal número de construcciones. La Diputación también habilitaba como arquitectos, *Maestro Arquitecto por el Señorío*, a canteros de solvencia y experiencia probada (125).

4.1. HARGINAK ETA ARKITEKTUAK. SAN FERNANDOREN AKADEMIAKO ARAUAK

Aintzinatik zebiltzan Bilbon eta Bizkaian Europako iparraldeko pintore, eskultore eta eraikitzaileak, *constructores* garaiko agirietan agertzen den bezala. XVII. eta XVIII. mendeetan zehar Transmieraetik etorririko euskal eta kantauriar eraikitzaileentzat toki mugatu egin zen hau. Mende biotan jaureerriko lanik garrantzitsuenak Gernika, Markina, Bolibar, Aiala eta Gipuzkoako ibarretatik eta Liendo, Rasines eta Limpiaseko egileek egin zituzten. Begien bistakoa da, beraz, lan gehienon estilo antzekotasuna (134).

XVII. mendea oso aldi egokia izan zen Bizkaiko arkitekturarentzat. Asko eta ondo eraiki zuten garai horretan. Churrigueraren gehikeriak nekez ikusten dira gure lurrotan, bertoko gustua askoz ere xeheagoa zelako, baina ez ziren bitxiak ostera Ignacio de Ibero edo fray Marcos de Santa Teresa baten obrak, bertoko beste eratzailerak eta maisuen beste lanekin nahaste: Capelastegui, Orueta, Iturburu, eta abar (135). Bizkaian zegoen hargintzaren tradizioak indar handia zuen eta bizirik zirauen. Gauza ziren bertokoak etxeak, zubiak, erretaulak, urtegiak eta antzekoak ondo eratu eta kalitate estetiko eta tekniko handiaz eraikitzeko.

Baina Gaztelako Kontseiluak indarrean jarri zituen bitarteko berriek, etxe berriak eratu eta eregitzeko, bertoko harginak herri-lanetatik bazterteza ekarri ziguten. Neoklasizismoa nagusitu zen eta estilo barrokozaleen iraupenarekin eten egin zen. Arkitektuen belaunaldi berriek, San Fernandoren Akademian trebaturikoak denak, teknikoki prestakuntza handikoak ziren, baina eraikuntza-lanak itzel handitu ziren eta ez ziren nahiko hain eraikuntza-kopuru handiari aurre egiteko.

Foru Aldundiak, bere aldetik, trebakuntza eta esperientzia handiko harginei (125) arkitektu maila aitortu zien, *Maestro Arquitecto por el Señorío izendapenez*.

De cualquier modo, hemos de pensar que los estilos arquitectónicos, y por lo tanto los gustos de los encargantes de una obra, no se cambian tan radicalmente. El neoclásico promulgado desde la Academia de San Fernando, era algo más que un lenguaje arquitectónico, ya que a él iba unida una nueva forma de entender la sociedad, una forma más *moderna* de pensar, es decir un nuevo sistema de entender la vida. Esta fue una época de revisionismo, todo se ponía en tela de juicio, cierto es que siempre con intenciones de mejorarlo, pero que arruinaba muchas de las tradiciones, modos e industrias del país por entenderse como anticuadas.

Como todo cambio, costaba que el neoclásico fuera asimilado por generalidad de la sociedad, aunque cada vez se iba prodigando más la presencia de construcciones de todo tipo basadas en las nuevas *maneras racionalistas*. Los ejemplos son abundantes, pero solo citaremos la magnífica iglesia de Larrabetzu, obra de Ventura Rodríguez, que ya en el año 1777 propone soluciones que inspirarán las de otros muchos templos a lo largo de la geografía vizcaína. Esta fiscalización artística *impuesta* desde Madrid no tuvo respuesta oficial, por lo menos en Bizkaia, pero sí oficiosa. En algunos pueblos no eran bien acogidas las obras de los arquitectos de la Academia, hasta tal punto que debían ser supervisadas por *algún tracista de los de siempre*. En Nafarroa sin embargo, se llegó incluso a considerar como contrafuero la normativa del visado obligatorio de la Academia para toda las nuevas obras públicas.

Pero en todo esto, es de suponer que se ocultaba una lucha de carácter profesional. Sería demasiado pueril presentar esa lucha como la disputa entre dos estilos arquitectónicos antagónicos por su modernidad o antigüedad o por el nivel de preparación de los artífices de las obras. Es cierto que las novedades suelen ser de dificultosa asimilación, aún y todo teniendo en cuenta este particular, en todo este asunto lo que en realidad se dilucidaba era la defensa de los intereses profesionales de cada parte en litigio. Los nuevos arquitectos oficiales siempre estuvieron apoyados desde el poder y por la gente ilustrada de

Dena den, ez zen bat batean estilo arkitektonikoen joera eta lanak eskatzen zuten bezeroen gustua aldatu. San Fernandoren Akademiatik bultzaturiko neoklasikoa, hizkuntza arkitektonikoaren beraren gainetik zegoen zerbait zen, gizartea ulertzeko era ere bazelako, gogoeta egiteko modu *modernoagoa*, bizitza ulertzeko sistema berria beraz. Garai honek errebisionismo handia ekarri zuen, dena zen aztergai eta zalantzagai, hala ere hobetzeko asmoarekin beti, baina herri-ohitura, egiteko erak eta industriak zaharkituztat hartu zituen eurok sarri akabatuz.

Aldakuntza guztiakin gertatzen den bezala, gizarteak nekez hartzen zuen berezkotzat neoklasikoa, nahiz eta bera gero eta sarriago agertu *modu arrazionalista* berrietan oinarritutako denetariko eraikuntzetan. Adibide ugari dugu honezaz, baina Larrabetzuko eleiza ederrarena baino ez dugu aipatuko. Ventura Rodríguezen lana dugu hau, eta 1777. urtean Bizkaiko lurretan zehar eleiza askoren ispilu izango ziren hainbat konponzio proposatu zuen bere lanean. Madriletik indarrez jarritako fiskalizazio artistiko hau ez zen ofiziala, Bizkaian behintzat, baina praktikan halan jazotzen zen. Herri batzutan ez zituzten begi onez hartu Akademiako arkitektuen lanok, eta betiko etxeginen batek begirale-betekizunetan eskatzen zuten. Nafarroan, oster, Akademiaren derrigorrezko baimena Foruaren aurkakotzat jo zuten herri-eraikuntza guztietarako.

Gai honetan, baina, bazen azpian profesionalen arteko azpijokoa. Umekeria hutsa litzateke borroka hau aurkako estilo arkitektonikoen arteko gatazkatzat hartzea, modernitatearen edo zahartasunaren arabera edo egileen trebakuntza mailaren arabera. Berriztasunek denbora behar izaten dute gizarteak onar ditzan, eta hala ere, arazo honetan benetan kinka larrian zegoena alde bakoitzeko profesionalen interesa zen. Arkitektu ofizial berriek beti izan zuten agintarien laguntasuna eta garaiko ilustratuen bultzada, besteak beste bertoko *Sociedad*

la época, entre los que se encontraban los pertenecientes a la Sociedad Bascongada de Amigos del País, sociedad que tanto trabajó en la mejora de la industria y la cultura de los ciudadanos y a la que pertenecían individuos de talla internacional en cualquiera de las ramas del saber.

4.2. LA SEGUNDA PETICION

Con el fin de la Guerra de la Independencia, se inició un periodo de construcciones y reconstrucciones, así de 1818 data el Camino de Coches de Bilbao a Durango, proyectado por Silvestre Pérez, el Hospital de los Santos Juanes, obra de Orbegozo de 1819, el proyecto de la plaza Nueva de Bilbao, realizado entre Pérez y Goikoetxea, el Cementerio de Mallona y la nueva Casa de Juntas de Gernika entre otros.

En ese sentido en diciembre de 1817, recién terminada la guerra contra Napoleón, se retoma en Galdakao el asunto de la construcción del nuevo templo. Nombran a Antonio López de Cadiñanos representante de los cabildos eclesiástico y civil de la Anteiglesia de Galdácano para que haga nuevamente la petición y la presente ante el Obispo de la Diócesis de Calahorra y La Calzada, a la que aún continuaba adscrita la parroquia de Galdakao (10).

Este apoderado basó su solicitud en los mismos argumentos en que se apoyó la anterior, es decir, lejanía, estado ruinoso, problemas con el camposanto, inasistencia de los fieles, paraje solitario y peligroso etc., añadiendo que éste es el estado del templo *de una de las anteiglesias de más población del dicho Señorío*. Pero en el escrito no se limitaba a realizar una solicitud para obtener el correspondiente permiso de construcción, ya que se evidencian otras intenciones, tales como un cambio en la ubicación de la parroquia, mientras se procedía a la erección de la nueva. Este cambio subsanaría el problema que padecía gran parte de la feligresía, que a causa de todo lo expuesto, y muchos al no poder desplazarse, *carecían del debido pasto espiritual*. Esos males precisaban diferentes soluciones que expuso detalladamente:

Bascongada de los Amigos de País izenekoarena. Erakunde honek hainbat eta hainbat lan egin zuen herritarren industria eta kultura-maila hobetzeko, eta partaideen artean edozein jakintza-arlotan nazioarteko maila jaristen zuten kideak zituen.

4.2. BIGARREN ESKABIDEA

Independentziaren Gerraren amaierarekin, eraikuntza eta berreraikuntza-aldi bat hasi zen. 1818.ean, esaterako, Bilbotik Durangorako Kotxe-bidea asmatu zuen Silvestre Pérezek, 1819.ean Orbegozok Santos Juaneseko Ospitalea egin zuen, Pérezen eta Goikoetxearen artean Bilboko Plaza Barriaren egitasmoa aurkeztu zuten, Mallonako hilerria, Gernikako Juntetxe berria.

1817.eko abenduan, Napoleonen aurkako gerra amaitu eta jarraian, eleiza berriaren gaiari berriro oratu zitzaion. Galdakaoko Eleizateko eleiz eta herri-batzarrek Antonio López Cadiñanos hartu zuten ordezkari berriren berriz, eskabidea egin eta Calahorrako eta La Calzadako Gotzaitegiaren aurrean aurkeztu zezan, beronen pean zegoelako aldi haretan ere Galdakaoko parrokia (10).

Ordezkari honek bere eskabide hau aurrekoan egin zenaren gainean oinarritu zuen, hau da, urruntasuna, egoera txarra, hilerriaren arazoak, eleiztarren hutsegiteak, toki apartekoa eta arriskutsua, eta abar, eleiza hau Jaurerriko eleizateetan jendetsuenetakoa zela aipatuz, *una de las anteiglesias de más población de dicho Señorío*. Baina idatzian ez zuen eraikuntzarako baimenaren eskabide hutsa egiten, agerian zituelako beste asmo batzuk, esate baterako parrokiaren toki-aldatzea berria egiten zen bitartean. Aldakuntza honek eleiztarren arazoa arinduko zukeen, aurrean esanikoagaitik eta eleizara joaterik ez zeukatenez beharrezko erlijio-dotrina jasotzen ez zutelako, *carecían del debido pasto espiritual*. Arazoon konponbidea ere zehatz-mehatz aztertzen zuen idatzian:

... estamos ya en el tiempo crítico del invierno y por lo mismo se exige de un remedio pronto y eficaz. Este se conseguiría con la habilitación pronta de la Ermita titular de la Cruz de la Anteiglesia para que se sirva de Parroquial, y en el echo mismo de elegirla acordes la asamblea de la Anteiglesia y el Cabildo, se conoce que es la mas apta para el suplimiento tanto por si, como por su localización... que sirva de iglesia hasta la erección de la nueva y facultar a mis constituyentes para ponerla en estado decente... lo pido bajo la protesta y reserva de hacer mis recursos competentes como y donde convenga sobre los gastos consiguientes a la erección de nueva iglesia...

Dentro del mismo mes, el provisor del obispado de Calahorra y La Calzada solicitaba al vicario de Arratia los datos habituales en estos casos, es decir que informara sobre Galdácano, los fondos de su fábrica, la opinión de los patronos, sobre si habían comenzado las obras, el estado físico del templo y qué reparaciones eran necesarias *hasta dejarla corriente*, si la ermita a que se refería el apoderado, estaba en proporción de habilitarse para los efectos que se intentaban y si era suficiente para la feligresía (10).

El 26 de enero de 1818, el vicario de Arratia, Santiago de Zamacola envió su informe al provisor del obispado, diciendo que pasó por la anteiglesia en unión de *algunas personas íntegras e inteligentes a reconocer el estado de dicha iglesia como también de la hermita titulada de la Cruz*, para tomar noticias por él mismo e informar de todo lo solicitado. Notificaba en los términos ya conocidos sobre la situación del templo, la escasa asistencia de fieles los días festivos... en cuanto a la población decía que eran más de 800 personas. Informa cómo ya en 1792 se hizo una petición a la Real Cámara de Castilla, y que entonces se emitieron informes periciales referentes a la situación del edificio parroquial, recogidos de la opinión dada por los arquitectos nombrados al efecto, advirtiendo que desde entonces no se había hecho reparo alguno, por lo que la necesidad era extrema. En cuanto a la habilitación de la ermita de la Cruz como parroquia provisional, la encontraba sin la menor duda como la más apta, tanto por su localización como por su capacidad, pero que convenía se mandase añadirle un lienzo más, para mayor comodidad del vecindario (10).

4.3. TRASLADO DE LA PARROQUIA

De la lectura de los informes mencionados, inferimos que la insistencia en la necesidad de un

Hil horretan bertan, Calahorrako eta La Calzadako gotzaitegiko probisoreak edo epaileak Arratiko bikarioari halakoetan ohi ziren datuak eskatu zizkion, hau da, Galdakaoko berri ematea, bertako fabrikaren ondarea, patronoen eritzia, lanak hasita zeuden ala ez, eleizaren egoera fisikoa eta ze berrikuntza-lan zen derrigorrez behar zen moduan uzteko tokia, *hasta dejarla corriente*, ordezkariak aipatzen zuen ermita nahikoa ote zen xedeak betetzeko eta eleiztarrak hartzeko lain ote zen berau (10).

1818.eko urtarrilaren 26an, Arratiko bikarioak, Santiago de Zamácolak, gotzaitegiko probisoreari txostena bialdu zion esanez beste laguntzaile batzurekin, *algunas persona íntegras e inteligentes*, eleizatera bisita egin zuela ermitaren egoeraren berri izateko, *a reconocer el estado de dicha iglesia como también de la hermita titulada de la Cruz*, bertan zuzeneko zehaztasunak jaso eta eskaturiko guztiaren gainean txostena egiteko. Eleizaren egoera ezagun ditugun hitzekin azaldu zuen, jaiegunetan eleiztarrek sarri huts egiten zutela... Herriko biztanleak 800 lagun zirela esan zuen. 1792.ean Gaztelako Errege-Kamarari eskabidea egin zegoela ere esan zuen, eta ordukoan parrokiaren eraikuntzaz peritoen txostenak egin zirela, beren beregi izandaturiko arkitektuen eritzietan oinarrituz, eta azpimarratu zuenez ordukoan ez zitzaion inon erreparurik egin eskabideari, beharizan handia zegoelako. Gurutzeko ermita parrokia moduan egokitzeke lanez zera, berak zalantza barik aukerarik hoberena bezala ikusten zuela, bai zegoen tokiagaitik, bai har zezakeen jendetzagaitik, baina komenigarria litzatekeela horma berria egitea bertan auzoen erosotasunerako (10).

4.3. PARROKIAREN ALDAKETA

Aurrean aipaturiko txostenak irakurri ostean argi dago eraikuntza berriarena bigarren mailako

nuevo edificio parroquial había pasado a segundo plano. En ese momento no se incidía tanto en esa necesidad, sino en el traslado del culto a zona más urbana y cómoda del pueblo. Hemos de tener en cuenta que se acababa de salir de una guerra que comenzó casi cuando terminó otra, y que la coyuntura no sería especialmente favorable a dispendios económicos, ni aunque fuera para construir una nueva iglesia. Proyectos y posibilidades reales, frecuentemente no suelen ir parejos y con el traslado se solucionaba en cierto modo el problema de la lejanía.

Respecto a la ermita de la Cruz, su ubicación privilegiada la abocaba a un destino como parroquia. No resulta novedoso que se pensara en ese edificio para resolver el problema del templo. Recordemos que solamente diez años antes de que se pusiera en marcha el primer proyecto constructivo, en 1782, ya se adecentó con los fondos obtenidos del derribo de la antigua ermita de Santa Marina (8). Esto nos lleva a creer que posiblemente su uso como lugar de culto, no sería esporádico. Por otra parte, ésta tampoco será la última vez que se piensa en ella con el propósito de utilizarla como templo.

En sus orígenes, este edificio no estaba cerrado por sus cuatro lados. Era una de esas edificaciones que se construían para cobijar los humilladeros existentes a las entradas de los pueblos, es decir tres paredes de obra, cerrándose el cuarto costado mediante una cancela de hierro o madera que dejaba a la vista el interior. De lo que se observa en el plano de Albiz y de los datos que nos proporciona el documento de su ampliación, se deduce que el edificio daba la espalda al ayuntamiento y al camino real. En su cabecera tenía un pequeño ábside cuadrado, más bajo que el resto de la construcción. La verja del cierre era de hierro. Se prolongaba la ermita en un atrio cubierto rodeado de muretes hasta media altura, donde apoyaban los postes que sustentaban el tejado, mirando todo el conjunto hacia Elexalde (31).

En esta ocasión, tal y como se sugería en la petición de Antonio López de Cadiñanos, la resolución fue rápida. El 5 de marzo de 1818, el licenciado Francisco de Baeza y Baeza, provisor y vicario gene-

gaia zena. Gehiago zen eleizkizunak herniaren erditik hurrago eta erosoago zegoen toki batera aldatzea. Kontuan izan behar da gerra batetik irtenberri zeudela eta berau ia-ia beste gerra baten jarraian sortu zela, eta egoera ez zela egokiena alperriko diru-gastuak egiteko, eleiza berria egiteko ere ez. Egitasmoak eta benetako aukerak ere bazeuden, alde batekoak eta besteak eta sarri ez zetozten bat, baina toki-aldaketarekin neurri handiak urruntasunaren arazoak konponketa zeukan.

Gurutzeko ermita zela eta, berau parrokia bihurtzeko toki aproposenekoenean zegoen. Ez zen gainera gauza berria etxe honetan pentsatzea eleizaren ordezkotzat moduan. Lehenego eraikuntza-asmoa bultzatu baino hamar urte lehenago bakarrik, 1872.ean, berrizatu egin zuten berau Santa Marinako ermita zaharra bota ondoren ekarritako irabaziekin (8). Beraz, eleizkizunetarako toki moduan ez zen noizen behingo kontua bakarrik. Beste alde batetik, ez zen azkenengoz pentsatu honetan eleiza moduan erabiltzeko asmoarekin.

Jatorrian etxe hau ez zegoen lau aldeetatik itxia. Herrien sarreretan zeuden otoitz lekuak babesteko egiten zen tokietako bat zen, hau da, hiru horma eta laugarrena burdinezko edo zurezko ateaz ixten zen.

Albizen planutik ikusten denez eta beronen zabalkuntzarako eginiko agirietan agertzen denez, etxe honen atzekaldea udaletxeari eta errepedeari begira zegoen. Buruan lauki itxurako abside txikia zuen, eraikuntza osoa baino txikiagoa. Ixteko erabiltzen zen hesia burdinezkoa zen. Ermitak luzapen moduan teilatudun eleizpetxoak zeukan, altuera erdirainoko horma batekin, teilatuari eusten zien habeen euskarri. Etxe osoa Elexaldera begira zegoen (31).

Oraingo honetan, eta Antonio López de Cadiñanosen eskabideak iragartzen zuenez, erabakia bat-batekoa izan zen. 1818.eko martxoaren 5ean, Francisco de Baeza y Baeza lizentziatuak, Calahorrako eta La

ral del obispado de Calahorra y La Calzada, escribía al vicario de Arratia informándole de la decisión tomada, se autorizaba la utilización de la ermita de la Cruz como parroquia (10):

... mientras se fabrica iglesia nueva, también concede licencia en firme a dichas comunidades para que desde luego a costa común, reparen, ensanchen y dejen en disposición de servir de tal parroquia, todo a decisión de dicho vicario (de Arratia) ...y que una vez adornada pueda disponer a ella la traslación del Santísimo Sacramento y la Pila Bautismal y providenciar que en la misma celebren las misas y hagan las funciones eclesiásticas que hasta aquí se han acostumbrado en la parroquia... se encarga a dichas comunidades continúen las diligencias conducentes hasta conseguir la fábrica de la nueva iglesia... (33).


Pero para poder cumplir con las condiciones de la autorización y convertirla en parroquia, eran necesarios una serie de reparos en la ermita, tales como dotarla de una sacristía, cerrarla totalmente y por supuesto ampliarla, ya que como hemos visto al hacer su descripción, no se trataba de una construcción que fuera espaciosa.

En el pliego de condiciones bajo las cuales se debían ejecutar las obras (31), se cita expresamente que éstas eran de reforma y añadido ya que lo que se pretendía era cerrar el atrio cubierto, construyendo sobre los muretes laterales nueva pared hasta la altura del tejado, abriendo en ambos lados dos puertas para que sirvieran de ingreso al edificio y dos ventanas que dieran luz al interior. Para cerrar el muro situado a los pies, en la zona orientada hacia Elexalde, se pensaba levantar sobre el existente que llegaba hasta media altura, una balaustrada de madera a modo de enrejado, rematada con un travesaño sobre el que se construiría pared de ladrillo hasta el tejado. Todo el suelo sería entarimado y como puerta principal quedaría, de las nuevas, la del lado de la plaza. Además de esto se pensaba añadir a modo de pórtico, igualmente por el lado que miraba hacia Elexalde, otro tramo de veinte pies de largo, con su cubierta y la misma anchura que había en el resto del edificio. Para completar el conjunto, se construiría en el lado norte otro espacio de doce pies de ancho por dieciséis de largo para utilizarlo como sacristía. El costo de todo se cifraba en 3.870 rs.

Calzadako gotzaitegiko probisore edo epailea eta bikario orokorra zenak, Arratiko bikarioari erabakiaren berri emanaz egin zion gutuna, Gurutzeko ermita parrokia gisa hartzeko baimena ematen zuela (10):

Baina baimeneko baldintzak bete eta ermita parrokia egin ahal izateko, beharrezko ziren ermitan berrikuntza-lan batzuk, esate baterako sakristearen eraikuntza, etxe beran alderdi guztietatik ixtea eta zabaltzea, bere deskribapenean ikusi dugunez, eraikuntza zabalegia ez zelako.

